

## Kultura

Karrika antzerki taldeak eta Bartolome Ertzilla Musika Eskolak elkarlanean sortu duten 'Deshakespeareazioa' obra estreinatuko dute San Agustinen. > 15



## Durango txosnak Kurutziagan: batzuk gustura, besteak kexu

Durango Udala eta Txosna batzordea akordiora heldu dira eta argitu da aurtengo non kokatuko den Txosnagunea: Kurutziaga kalean. Pozik agertu dira batzordeko kideak erabakiagaz. Auzokide batzuk, ostera, kexu dira, eta erabakiaz prentsatik enteratu direla diote. Duela bost urte ere kale horretan egon ziren txosnak, eta polemika piztu zen. > 5

*“Transplante baten ostean kalitatezko bizitza egin daiteke, edozeinen moduan”*



Javier Agirre | Txirrindularia > 17

## Durangaldeko lehen zerbeza



Modan daude artisau garagardoak, baita euren elaborazioa ere. Durangaldeko hiru lagunek euren pasioari bide eman eta Garai zerbeza sortu dute, dagoeneko kalean dagoena. Bertako produktoreen eskutik, bertako garagardozeleantzat. > 2-3



**DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA**

**CEPA DURANGO HHI**  
**Doako irakaskuntza ofiziala**

Laubideta kalea, 6 DURANGO  
Tel.: 946 814 253  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)



### IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

### IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



**MATRIKULA ZAITEZ**  
946 814 253

[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

**MATRIKULA-EPEA: irailaren 1etik 15era**

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/  
16:00-19:00 · Ostiraletan: 09:00-13:00

### Durangaldea > 4

2.000 sinaduratik gora airearen kalitatea hobetzea eskatzeko

### Berriz > 9

Orain 80 urte fusilatutakoak gogoan izango dituzte Berrizen

### Elorrio > 8

Sukalki Eguna eta Kultur arteko jaiak, Ferixa Nausikoak amaitzeko

### Abadiño > 6

1.000 erosketa-bonu atara dituzte merkataritza bultzatzeko



## Herririk herri



Berriozabalgoitia, Muñoz eta Alberdi euren zerbezagaz topa egiten, tamaina handikoa izateagatik ezaguna den Garaiko artearen magalean.

# “Durangaldean bertako zerbeza edan dadila, hori da gure intentzioa”

Durangaldeak badauka bere lehen zerbeza; Berriozabalgoitiak, Muñozek eta Alberdik sortu dute

**GARAI** Markel Onaindia  
“Atera egidazu Garai zerbeza bat”. Hori da eskualdeko zenbait tabernatan entzuten hasi den eskaria. Izan ere, Durangaldeak badauka bere lehenengo zerbeza, bertako garagardozaleek dastatuko dutena, bertako ekoizleen eskutik. Ibon Berriozabalgoitia garaitarra, Ekaitz Alberdi durangarra eta Eduardo Muñoz abadiñarra dira abentura honetan busti direnak. Garagardoaren artisauak dira, ekoizpen eta errezeta propioagaz marka multinazionalen alternatiba izan gura dutenak. “Durangaldean bertako zerbeza edan dadila, hori da gure intentzioa. Gure tabernetan, gure

garagardoa eduki dezagun”, aldarrikatu du Muñozek.

### Non eskatu?

Estilo horiko zerbeza bat da kaleratu dutena. “Lupulu [garagardo-belarra] ukitu bat dauka, zereal zapore apur bat... baina edateko erraza da”, deskribatu du Berriozabalgoitiak. Kazetariari eskaini dio botila bat, eta bai, igartzen da edari artisauaren indarra, baina, era berean, oso gustura sartzen da eztarritik. Oraingoz, taberna edo denda hauetan eskatu daiteke Garai zerbeza: Durangoko Saltsan Kateringen, Martxel Harategian, Alpinon, Herrian, Gorrotzan eta Bidebaltzen; Mañariko U2n;

Berriozabalgoitia: “Lupulu ukitu bat dauka, zereal zapore apur bat... baina edateko erraza da”

Duela urtebete hasi ziren lehenengo errezetak eta probak egiten, “esperimentuak”

Izurtzako Herriko tabernan; eta, zelan ez, Garaiko Herriko tabernan eta Garai jatetxean. 2,5 eurotan saltzen dute, artisaua izateko ez da karua. “Gure etekin-tartea bajatu dugu, tabernariak tarte bat edukitzeko eta jendearentzat egokia izan dadin”, arrazoitu du Alberdik.

### Garaitik

Garaiko Etxeita baserria dute elkargune, eta hortik dator zerbezaren izena. Horrez gainera, ortuariak gordetzeko erabiltzen zen egiturari ere Garai esaten zaio, eta hori ere kontuan eduki dute sortzaileek. Bestalde, euren logotipoan zuhaitz aparteko lez izendatua dagoen

Garaiko Arteari keinu egin diote, baserritik gertu dago eta.

Duela urtebete hasi ziren lehenengo errezetak eta probak egiten, “esperimentuak”, euren dioten lez. Denbora horretan zehar sortzen joan direna ingurukoei eman diete dastatzeko, errezetarik onenaren bila testak egiten. “Azkenean, jendea garagardoa eskatzen hasi zitzaigun, eta komertzializatzea aukera bat zela pentsatu genuen”, esplikatu du Berriozabalgoitia. Garaiko Sagardo Eguna izan zen pausoa emateko giltzetako bat; Berriozabalgoitiak eta Alberdik Zezpala sagardo ere sortzen dute beste lagun batzuekin batera, eta, egun horretan, sagardoaz aparte garagardoa eramatea ere otu zitzaien, herritarrek probatzeko. Zerbezak “hegan” egin zuela gogoratzen du Alberdik, 40 litro eskaini eta beste 40ren bila joan behar izan zuten.

Orain hile bat 1.000 litro produzitu zituzten, eta konturatu

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2017ko irailaren 8a  
14. urtea - 688. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua





Muñoz, sarri laguntzaile dituzten bere aitagaz eta Xabi Agirrezabalegaz.



Alberdi, makineria ikuskatzen.



Berriozabalgoitia, botilaratzeko prozesuan.

**1.000**

litro produzitu, eta konturatu orduko gastatu ziren. Horregatik, beste 1.000 atera berri dituzte

orduko gastatu zaie, arrakastaren seinale. Horregatik, beste 1.000 litro atera berri dituzte. “Uste genuen hasierako litroek hiru bat hile iraungo zutela. Gure intentzioa askoz geldoago joatea zen, baina jendeak bulztatu egin gaitu”, dio Alberdik.

Merkaturatu ahal izateko osasun-baldintzak pasatu behar dira, eta horrek instalazio zehatz bat edukitzea eskatzen du. Horregatik, Sondikako Txorierrri Garagardoak enpresaren fabrikari egin eta botilaratu dute tabernetan saltzen ipinitako edaria.

Zerbeza sortzeko ideia ez da egun bateko beroaldiaren ondo-

rio. Ibonek eta Eduardok, bere kabuz, urteak daramatzate zerbeza ekoizteko probak egiten. Gainera, prestaketa ere badute: Berriozabalgoitiak garagardogintzaren inguruko master bi egin ditu Alacanteko unibertsitatean.

**Artisauak, modan**

Zerbeza artisauak modan daude, eta gero eta gehiago dira euren kabuz produzitzen hasten direnak. Durangaldean hainbat dira etxean ekoizten dutenak. Ardoaren kalitatea estimatzen den bezala, garagardoarena ere estimatu behar dela uste dute Garai sortu dutenek. “Kalitate baxukora ohitu gaituzte”, dio Alberdik marka handiei erreferentzia eginez. “Artoa, arroza... almidoi merkea botatzen diote, eta lupulu gutxi ere bai”, jarraitu du Berriozabalgoitiak.

**Norbere ilusioa**

Garaiko lantegian eurek muntatu dute probak egiteko makine-

## Bertan egindako garagardoa eta kata bereziak dastatzeko aukera, Makatzetan

Iaztik eskaintzen dute eurek ekoiztutako zerbeza Arrazolako jatetxean

Garai da botilaratu eta tabernetara eraman den Durangaldeko lehen zerbeza, baina Atxondoko Makatzeta jatetxean iaztik eskaintzen dute euren edari propioa. Zarautz Beer Companygaz batera artisau garagardoa egin dute, eta

Zarautz Beer Companygaz batera artisau garagardoa egin dute, eta jatetxean bertan dastatu daiteke

jatetxean bertan dastatu daiteke, upeletik aterata.

Horrez aparte, beste hainbat artisau garagardo ere badituzte. Bestalde, kata bereziak dituzte aukeran; menu berean zenbait zerbeza probatzea posible da, jatekoagaz lagunduta.

ria-katea. Beraz, teknologiatik ere badu zerbaitek gaiak, zientzia eta artetik aparte. Prozesua eta zerbeza euren eskuekin egindakoa izateak ilusioa sortzen die hirurei. “Txikitan bezala, edabeak egiteko jolas bat da niretzat”, aitortu du Muñozek. Gainera, ingurukoekin auzolanean ibiltzen dira, Eduardoren aitagaz eta Xabi Agirrezabale-

gaz sarri. Proba berriak egiten jarraitzen dute, eta orain zerbeza ilunago bat elaboratzen hasi dira. Gainera, lupulua eta garagarra landatzen ere badabilta baserri inguruetan.

Momentuz, *hobbie* bat dela diote hiru bazkideek, eurek badutela euren lana, eta, gainera, gaitza dela honetatik bizitzea. Eskulanean ondo pasatzen dute,

eta jendeak ere ondo pasatzea da euren asmoa. Ibon: “Poztasuna ematen du jendea zuk egindako garagardoa edaten ikusteak”. Datorren barikuan Durangoko *Matadero* auzoko pintxopotean egongo dira euren zerbeza aurkezten. Trikitilariak eramango dituzte, eta etekinak Sahararen aldeko Rio de Oro elkartearentzat izango dira.



**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com

**hitz**  
liburudenda

**#gomendioak**

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com



HELDUENTZAT  
NAGUSIA KANPOAN BIZI DA  
& 1928KO MARTXOAREN 15A  
Takiiji Kobayashi  
2017



UME ETA GAZTEENTZAT  
HARTZ ETA  
UNTXI - OKILEN MATRAKA  
Gough & Field  
2017



MUSIKA  
2  
The Gloom  
2016



## 2.200 sinaduratik gora, airearen kalitatea hobetzea eskatzeko

Azken hileetan handitu egin da airearen kalitatearen inguruko kezka



Fabrikez gainera, autoak dira airearen kutsaduraren iturri nagusietakoak.

**DURANGALDEA** M. Onaindia Durangaldeko hainbat herri-tarren aspaldiko kezka bat da arnasten dugun airearen kalitatea, eta azken hileetan handitu egin da. Sare sozialetan ke-xak zabaldu ditu jendeak, egun zehatzetan egondako hatsagatik. Vanessa Goikoetxea herri-tarrak aire garbia lortzearen aldeko sinadura bilketa hasi zuen zapatuan Interneteko *change.org* atariaren bidez, eta egun gutxitan, ehunka lagun babesa jaso du. Atzo, 2.200 sinaduratik gora zeuden batuta dagoeneko.

Julian Rios Durangoko Herriaren Eskubideko zinegotzia izan da sare sozialetan airearen kalitate txarra kritikatu duenak, eta hori argudiatzeko, Interneteko neurketa batzuk erabili ditu. “Gero eta usain txarragoa egoten da, batez ere

iluntzeetan. Euskal Herriko errekorra gainditu dugu hainbat egunetan. Datu larriak dira”, ohartarazi du Riosek.

### 18 bider gaindituta

Eusko Jaurlaritzak Durangoko San Roken eta Zornotzako Montorran eta Zelaieta parkean ditu aire neurgailuak. Ekologistak Martxanek zabaldu duenez, 2016an 18 bider gainditu zen aire kutsatuaren maila, osasunerako kaltegarrienak diren suspentsio partikulen kopurua neurtuta.

Munduko Osasun Erakundearen indizeak kontuan hartuta, aire kalitate txarra suposatzen dute datuek. Baina, instituzioek beste indize batzuk erabiltzen dituzte, dezente luzeagoak, Europar Batasunarenak. Horiei jarraituta, airea ez

da txarra. Hortxe dago eztabaida. Durangoko Udalak, bere aldetik, momentuz adierazpenik ez duela egingo esan du. Baina, ikerketa egitea eta neurriak hartzea eskatu du Riosek. “Fabrika eta kutsadura askoren eraginpean gauden herri honetan, interesgarria litzateke herritarrek kutsadura-adierazleak ezagutzea”, adierazi du.

### 21 isurketa erreketan

Bestalde, erreketan isurketa toxikoak egin izan direla salatu du Riosek, URA agentziak egindako txosten batean oinarrituta. Horren arabera, ekainera bitartean legez kanpoko 6 isurketa egon dira Mañaria eta Ibaizabal erreketan. Horrez gainera, beste 15 isurketa ere identifikatu dituzte, URAk justifikatutzat eman dituenak.



Goikoetxea sopranoa da eta lan kontuengatik asko bidaiatzen du.

## “Durangon ez dakigu zer arnasten ari garen”

Vanessa Goikoetxeak sinadura bilketa abiatu du ‘change.org’ plataformaren bidez

### Zelan bururatu zaizu ekimen hau martxan jartzea?

Kanpoan ibili naiz, 7 edo 8 urtez. Etortzen nintzen bakoitzean lagunei esaten nien hatsa zegoela, baina erantzuten zidaten kanpoan nenbilenez ez nengoela ohituta. Orain, Durangon gehiago egoten naiz, eta zerbait egitea pentsatu dut. Gainera, ez da hatsa bakarrik. Durangoko aireak zer du? Ez dakigu zer arnasten ari garen. Horixe da jakin gura duguna. Eta Durango esaten dudanean Durangaldea esan gura dut, airea alde guztietara heltzen da eta.

### Ikerketa batzuen emaitzek diote Durangaldeko airearen kalitatea ez dela txarra.

Bai, baina beste ikerketa batzuek diote inguru honetan gaixotasun kasu asko daude-

la. Horregatik, interesgarria litzateke beste ikerketa batzuk egitea zer gertatzen ari den jakiteko.

### Hatsa dagoela kritikatu duzu. Hats hori noiz nabaritzen duzu gehien?

Lehen, haizearen arabera zela esaten genuen, lantzean behin izaten zela. Baina, orain, eguneroko kontua da. Uda honetan leihoak ireki ezinik egon gara.

### Ekimen honegaz instituzioen aldetik erreakziorik espero duzu?

Zenbat eta jende gehiagok sinatu, orduan eta indar handiagoa izango dugu zer edo zer egiteko. 2000 sinaduratik gora jaso ditugu. Harrera hain ona izateak esan gura du jendeak baduela kezka hori.

## Euskal Herriko artzain-txakurrik onenak Axpen, hilaren 16an

Durangaldeko lau artzainek Bizkaiko Txapelketa jokatu dute asteburuan

**ATXONDO** M. Zuazubiskar Euskal Herriko artzain-txakur-  
ren txapelketa Axpen jokatu da beste behin, hilaren 16an.

Aurten 51. aldia izango du Gerediaga Elkartek Atxondoko Udalaren laguntzagaz antolatutako lehiaketak. Guztira, hamaika txakur batuko dira Axpen, Elizaburuko landetan, 17:30ean.

Parte-hartzaileen zerrenda Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko txapelketetako txapeldun eta txapeldunordeek osatzen dute.

Horrez gain, iazko txapelketako irabazlea den Enrike Mendigurren ere Axpen izango da.

Abadiñoko lau artzainek parte hartuko dute asteburu honetan Bizkaiko Txapelketan

### Bizkaiko txapelketa

Aurrez, berriz, asteburu honetan, Bizkaiko Txapelketa jokatu dute Mungian, eta bertan

Durangaldeko partaidetza zabalago da.

Bizkaiko Txapelketan lau abadiñar egongo dira: Jose Angel Azkorbebeitia Sorgin eta Txati txakurrekin, Jose Migel Etxebarria Txiki txakurragaz eta Aitor eta Joxe Urien aita-semeak Arin eta Xarpa txakurrekin, hurrenez hurren.

Lau artzain abadiñarrak eta beraien artzain-txakurrak Bizkaiko txapela lortzeko eta Euskal Herriko artzain-txakur txapelketan parte hartzeko lehian arituko dira Mungiako proban.



17:30ean hasiko da Axpeko txapelketa. Txelu Angoitia - Gerediaga Elkartea



# Sanfaustoetako txosnak Kurutziagan ipiniko dituzte, eta auzokide batzuk kexu dira

Udala eta Txosna batzordea akordiora heldu dira; Kurutziagako auzokideak batzartzen hasi dira

**DURANGO** Joseba Derteano Hilabete pasatxo falta da San Fausto jaiak ailegatzeko, eta udalaren eta Txosna batzordearen akordioaren ostean, argitu da Txosnagunearen kokalekua zein izango den: Kurutziaga kalea. Udaleko ordezkariak esan dute inguruko auzokideekin batzartuko direla eraginen inguruan berba egiteko; “lehenbailehen” izango da hori, momentuz batzarrerako datarik ezarrita ez badago ere. Auzokide batzuk kexu dira, eta eguaztenez batzarra egin zuten euren desadostasuna zelan erakutsi adosteko. Datozen egunetan emango dute euren ondorioen berri. Erabakiaz prentsarik enterratu direla salatu dute.

Alde Zaharreko DAZ elkartek ere batzarra eduki zuen eguaztenez. Jai-giroak bete-betean harrapatzen dituzten eremu horretako auzokideak, bai tabernekin, bai sarri txosnekin. DAZekoek adierazi dute Kurutziagako bizilagunen kexa



Duela bost urte ere Kurutziaga kalean egon zen Txosnagunea. Kepa Aginako

“ulertzen eta errespetatzen” dutela, eurek ere jaietan “segurtasun arazoak” jasaten dituztelako. Hurrengo galderak egin

dituzte ohar bidez: “Nondik sartuko litzateke anbulantzia bat Zezenak Dira bitartean? Zer gertatuko litzateke larrialdi kasu

batean suhiltzaileek karkabetera sartu beharko balute, jakinda okupatuta egoten direla?”. Zezenen ordutegian, jendea etxetik

irten ahal izateko neurriak hartzea eskatu dute DAZekoek.

Euren ustez, “txosnak beharrezkoak dira jaietan”, baina txandakatzeko modu on bat topatuta, “denok baikara jakitun horien albo-kalteez”.

## Txosnetakoak, pozik

Txosna batzordeak pozik hartu du euren gunea Kurutziagan muntatzeko erabakia, bere “baldintzak betetzen dituelako”, esan dute kideek. Alde Zaharreko jai-girotik hurbil egotea, gune ireki bat izatea eta pertsona guztientzako eroso eta irisgarria izatea izan dira euren baldintzetako batzuk.

Iazko jaiak amaitu eta lasterrera hasi zen batzordea udalagaz harremanetan. “Argi daukagu Pinondo dela gure gunea naturala, baina posible ikusten dugu txosnek beste leku finko batzuk edukitzea eta urterik urtera txandakatzea. Ez dugu nahi udalagaz urtero borrokan ibiltzerik lekua dela eta”, azaldu dute txosnetakoak.

Duela bost urte, Kurutziagan, batzordea gustura azaldu zen. Baina, polemika sortu zen auzokideak egun gutxiren faltan enterratu zirelako, eta anbulantzia batek gunean sartzeko arazoak izan zituelako.

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

## Matrikula zabalik

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz      gmhz.mgep@mondragon.edu

943 71 21 91 • 664 277 592





Langilea hil eta gero elkarretaratzea egin zuten, enpresa batzordeak deituta.

## CCOOK “gardentasun falta” leporatu dio Fumbarri enpresari

Behargin baten heriotzaren “ikerketa oztopatzea” egotzi dio sindikatuak

**DURANGO** Joseba Derteano Abuztuaren 18an 49 urteko behargin lekeitiar bat hil zen Fumbarri fundizioan, lan istripuz. Ikerketa hasita dago, eta Fumbarrik “gardentasun falta” eduki duela adierazi du CCOO sindikatuak. Informatu du joan zen egunean Lan Ikuskaritzakoak etorri zirela bisitan ikerketa prozesuaren baitan, eta horretan laguntzeko asmoz sindikatuko prebentzio-ordezkarien laguntza eskaini

ziola enpresari. Baina eskaintza horri aurreko gauean erantzun ei zion enpresak, eta “ikerketa oztopatzeko” eta “istripuaren ardurak saihesteko” helburuz egin duela uste du CCOOK.

Sindikatuak ez dakite ikerketaren emaitzak noiz jakingo diren.

“Ez gatz lanera hiltzera” Heriotzaren osteko elkarretaratzean, argi mintzatu zen enpresa batzordeko presidente (LAB)

Jon Larrinaga. “Ez gatz lanera hiltzera; soldata duin bat irabaztera gatz”, adierazi zuen. LABek, bere aldetik, gogoratu zuen enpresan hainbat istripu egon izan direla, eta silikosi kasu ugari ere bai.

### Udalan batzartzea

Bestalde, udaleko ordezkariek Fumbarriko komiteagaz batzartzea eskatuko du EH Bilduk, “langileek bizi duten egoeraren berri izateko”.

## ANBOTO astekaria maputxeen herrian

Garabideren bidez Durangaldeko astekaria ezagutu dute mapudungun hizkuntza irakasleek

**DURANGO** J.G.

Garabide elkartearen bidez, Marisa Barrena zornotzarrak mapudungun hizkuntza irakasleei Euskal Herriko hainbat esperientzien berri eman die Txilen, Temuco hirian. Tartean, hizkuntzaren normalizazioan hedabideek duten garrantzia azaldu die. Barrenak maputxeen herrira egindako bidaian eramandako aleen bidez, ANBOTOren proiektua bertatik bertara ezagutu dute

irakasle hauek. Berria egunkariaren proiektua ere aztertu dute.

### Esperientzia trukea

Hizkuntza gutxituak dituzten Hegoaldeko herri indigenekin euskararen berreskurapen esperientzia partekatzea da Garabideren helburua. Partekatetik, euren ekimenak ezagutu eta modu eragilean euskalgintzaren esperientzia nazioartean zabaltzea gura dute.



Marisa Barrena mapudungun irakasleekin, maputxeen herrian.

## Lau robot berri, bederatzi gazteren sormenari esker

Batzuek Eibarko txapelketan parte hartuko dute

**MALLABIA** J.D.

Mallabiko bederatzi gaztetxok ingeniari sena badutela erakutsi dute. Sormena eta zientziarako zaletasuna sustatzeko, gazterobotika izeneko tailerretan taldeka lanean aritu dira, eta lau robot sortu dituzte. “Gaztetxoak ilusioz aritu dira, eta horixe zen helburua”, dio ekimenaren ardura daraman

Doplay enpresako arduradun Alberto Asinek. Aste honetan diseinatutako robotak irailaren 23an Eibarren egingo den Euskadiko txapelketan aurkeztu daitezke. Ez da derrigorra, baina Mallabiko gaztetxo gehienek baiezkoa eman dute. Modalitate bitan parte hartuko dute robotek: pilota jaurtiketan eta sumo borrokan.



Robotika tailerretan parte hartu duten Mallabiko gaztetxoak.



Maria Barato eta Lorea Iriondo merkatariek eta Iñaki Rekalde zinegotziak aurkeztu zuten kanpaina, udaletxean.

## 1.000 erosketa-bonu atera dituzte herriko merkataritza bultzatzeko

Urriaren 31ra arte, herriko 26 dendatan erabili ahalko dira erosketa-bonuak

**ABADIÑO** Itsaso Esteban

Irailaren 1etik martxan dago herriko merkataritza bultzatzeko helburuagaz udalak eta Abadiñoko Merkataritza Elkarrekin martxan ipini duten erosketa-bonuen kanpaina. Herriko 26 denda dabilta aurtengo edizioan parte hartzen, eta urriaren 31ra arte egongo da martxan ekimena. Kontsumitzaileek bost euroko balioko

1.000 erosketa-bonu izango dituzte eskuragai kanpainagaz bat egin duten 26 dendetan.

“Gure helburua da abadiñorak herriko dendetan sartu daitezela eta ezagutu ditzatela horietan eskaintzen dituzten produktuak”, adierazi zuen Iñaki Rekalde zinegotziak ekimenaren aurkezpenean. “Seguru gaude kanpaina honi esker herriko dendek bezero bat baino

gehiago irabaziko dutela datozen hileetan”, adierazi zuen.

### Jaialdia 30ean

Lorea Iriondo merkataritza aurreratu zuenez, kanpaina horregaz batera, merkataritza elkartekoak herriko merkataritzaren jaialdia prestatzen dabilta, irailaren 30erako. Iaz sorturiko merkatarien elkar-  
tea ezagutzera eman gura dute.



**IURRETA** Markel Onaindia  
 “Alardearen inguruan sekulako lana egiten dabilzanek sari bat ematea garrantzitsua da niretzat”. Halaxe zioen Kristina Mardarasek Hondarribiko Jaizkibel konpainiak emandako Berdintasun Saria jasotako biharamunean. Pozik agertu da, eta “apur bat emozionatuta” ere bai. Berdintasun Sariaren 3. edizio honetan emakume bertsolariak omendu ditu alarde pare-

Mardaras: “Alardearen inguruan sekulako lana egiten dabilzanek saria ematea garrantzitsua da”

kidea sustatzen duen Jaizkibel konpainiak. Han izan zen Mardaras, baita Durangon bizi den Erika Lagoma lesakarra ere.

Hondarribian giro ona ikusi arren, Mardarasek “pena” sentitu du alarde diskriminazioaren entseguen topo egitean gazteak ere ikusi zituelako. “Zerbaitek huts egin du gazte horien hezkuntzan”, dio ofizioz irakasle izan zenak. Alarde parekidearen entseguetan egon zen Mardaras eta

## Jaizkibelet saritutako emakume bertsolarien artean dago Mardaras

Hondarribian alarde parekidea sustatzen duen konpainiak eman die saria



Hondarribian egin zuten ekitaldian batutako emakume bertsolarien irudi bat. Argazkia: Jaizkibel Konpainia

gaur, alarde egunean, berriz joango da Jaizkibel konpainiari babesa erakustera.

Mardarasek efemeride berezia konpartitu zuen saria jaso zuen beste bertsolarietako bate-

gaz: 25 urte dira Hondarribian lehenengoz kantatu zuenetik, eta Maddalen Lujanbio lagun zuela plazaratu zen, hernaniarrrak 15 urte baino ez zituela. Bertsolaritzaren erreferenteetako

bat da Lujanbio, 2009an Euskal Herriko txapelkun izan zena. Bestalde, Mardaras, Euskal Herriko Txapelketa Nagusian parte hartu zuen lehen emakumea izan zen, 1986an.

## Leku ezagunen irudiak dituzten katiluak opari

**IURRETA** A. Basauri  
 Herriko komertzioetan erostea bultzatu guran, kanpaina berria jarriko du martxan Iurretako Udalak Dendak Bai merkatari elkarteagaz batera. Ekimen berri honen helburua bezeroa “saritzea” eta fidelizatu ahal izatea ere bada, Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez.

Herriko establezimenduetan 30 eurotik gorako erosketa egiten duten pertsonen artean Iurretako leku adierazgarrien argazkia duten katiluak banatuko dituzte. Irailaren 15etik abenduaren 15era iraungo du ekimenak, eta erosketa txartelak aurkeztu dituztenen artean 100 euroko erosketa balea egingo dute zotz, abenduaren 22an. Txartelak udal bulegora eraman behar dira.

Diseinuzko poltsak oparitu zituzten azken kanpaina, eta hark izandako erantzun ona errepikatzea espero du Dendak Bai-ko presidente Alex Palaciosok.

## 44. Kofradi Eguna ospatuko dute domekan

**IURRETA** A. Basauri  
 Aurten 44. aldia izango duen Kofradien Eguna ospatuko dute Laixiar zelaian, domekan. Iurretako sei kofradiek —San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketak— urteko kontuak azaltzeko aprobeztatuko dute.

Kofradien Batzar Orokorra 12:00etako meza ostean egingo dute. Dantzariak eta bertsolariak jardungo dute batzarra amaitu ostean. Gero, bazkari herrikoia egingo dute. Arratsaldean, umeentzako jolasak eta erromeria egongo dira.

## Santo Tomas en emango diete errematea jaietako

Etzi dantzak eta bertsolariak egongo dira

**IZURTZA** J.D.  
 Jaietako bigarren asteburu ekitaldiz beteta dator Izurtzan. Joan zen domekan Santa Agda ermitaren bueltan batu ziren moduan, etzi Santo Tomas ermita eta bere ingurua bihurtuko dituzte protagonista. Goizeko mezaren ostean, Mendi Gain dantza taldeak saioa eskainiko du. Egun bereziak dira dantza taldearentzat, aurtengo jaietan 50 urte bete direlako taldea sortu zutenetik. Dantzen ostean, bertsolarien txanda

izango da, Manu Goiogana eta Oihana Iguaranen eskutik.

**Bihar, Luhartzen erromeria**  
 Bihar herrigunean izango dira jaietako ekintzak. Iaz 100 parte-hartzailetik gora batu zituen mendi bizikleta mar txagaz ekingo diote egunari. Arratsaldean igel txapelketa eta tortilla txapelketa egingo dituzte lehenengo, eta afari herrikoia ostean. Luhartz taldearen erromeriagaz agurtuko dute eguna.



Mendi Gain dantza taldea, joan zen domekan. Juan Antonio Aroma

**2 KATEGORIA SARITUKO DIRA:**

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

# Irabazi asteburu pasa zoragarria edo tablet bat!

Bidali zure argazkiak irailaren 30era arte

UDAKO  
3. ARGAZKI  
LEHIAKETA

2016ko Durangaldeko argazkirik onena  
**JOSEBA ACEDO**

2016ko Durangaldetik kanpoko argazkirik onena  
**LEIRE UNZUETA**

Informazio gehiago [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

ANTOLATZAILEA **anboto** LAGUNTZAILEAK

**EROSKI** bidak **EROSKI** Abadiño Zurekin **eLaia**





Koadrila Egunean, jendez bete zen Elorrio.

## Sukalki Eguna eta Kultura arteko jaia, Ferixa Nausikoak amaitzeko

Neskato batek istripua izan zuen Koadrila Egunean, 'matxinsaltoa' barrakan

**ELORRIO** M. Zuazubiskar  
Ferixa Nausikoetako bigarren asteburuan murgilduko dira gaur elorriarrak. Jaietako azken txanpa izango da: Sukalki Eguna, kontzertuak, olinpiadak,

Elkartasunaren jaia, bertsolariak, herri kirolak...

Joan zen asteburuan eguraldi ona eduki zuten, baina oraingoan euria dago iragarrita, eta biharko Sukalki Eguneran talde

bakoitzak bere aterpea eraman beharko duela jakitera eman dute antolatzaileek.

Domekan, Kainaberak antolatuta, herriko hamaika kulturak ezagutzeko aukera egongo



Irailaren 11n amaituko dira Ferixa Nausikoak.

da Arriola eta Kanpokokale kaleetan, besteak beste.

### Istripua barraketan

Astelehenean, Koadrilen Egunean, beldurra nagusitu zen Elorrioko barraketan. 'Matxinsaltoa' izeneko barrakan zebilen neskato bati euskarria askatu eta erori egin zen. "Zorionez, neskatoak kolpe eta zauri arinak soilik izan zituen", adierazi du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak prentsa oharrean.

Astelehen iluntzetik eguazten goizera arte 'matxinsaltoa' barraka itxita egon zen, teknikari batek barrakari segurtasun-azterketa egin arte. Udalak ohar bidez jakitera eman duenez, barrakak "segurtasun-azterketa zorrotz bat" pasatu ostean, eta segurtasun elementu bat aldatu eta gero, barraka berriro ireki dute. Eta ordutik, 1,40 metro baino gehiagoko umeak bakarrik ibili daitezke nagusirik barik barraketan.



Ikusleei zelaia ondo ikusten uzten ez zieten panel opakuen ordez berriak ipini dituzte Solobarriako harmailetan.

## Kiroldegian eta futbol-zelaietan hobekuntzak egin dituzte udan

Kiroldegiko teiltuan zeuden itoginak kentzeko 43.019 euro inbertitu dituzte

### ZALDIBAR

Itsaso Esteban  
Udako hilabeteak aprobetxatuta hainbat obra egin dituzte Zaldibarko kirol instalazioetan eta eskola eremuan. Kiroldegiko teiltuan egin beharreko lanak gauzatu dituzte, batetik. Itoginak konpondu dituzte, 43.019 euroko aurrekontuagaz.

Solobarria futbol-zelaietan ere hobekuntzak egin dituzte, bestalde. Ikusleei zelai osoa ikusten uzten ez zieten zutabe opakuen ordez berriak ipini dituzte. Polikarbonatozko panel zehargarriak dira 3.545 euroko inbertsioa eginda ipini dituztenak.

Arratsaldetan erabilgarri egongo den komun publikoa atontzeko lanak ere egin dituzte udan honetan, eskola eremuan.

Datozen asteetan ipiniko dute eskolako komun publikoaren sarbiderako giltza elektronikoa

Eskola orduetatik kanpo, gurasoak eta umeak ikastetxeko jolastokian egoten diren orduetan erabili ahal izango da komun

hori, 16:00etatik 19:00etara. Komunaren sarbidea giltza elektronikoa bidezkoa izango da, eta sistema hori martxan jartzea falta da. Udal gobernua adierazi duenez, datozen asteetan ipiniko dute giltza elektronikoa sistema hori martxan.

Santa Isabel kalea oinezkoentzako gune bihurtzeko zutailan abiatu zituzten lanak ere datozen astean amaitzea espero du udalak. Margoketa lanak egitea falta da. Hainbat aparkaleku berri atondu dituzte kale horretan, eta oinezkoentzat pasabide berriak ere egokituko dituzte.

## Santi Onaindia beka eskatzeko azken egunak

Irailaren 29ra arteko epea dago eskaera egiteko

### ZORNOTZA

J.D.  
Zornotzako Udalaren eta Labayru Fundazioaren arteko lankidetzari esker —Bizkaiko Aldundiaren laguntzagaz—, Santiago Onaindia bekak Euskal literaturaren alorreko ikerketa lanak sustatzen ditu. Bi urterik behin banatzen den beka aurten banatuko dute, eta irailaren 29ra artekoa da proposamenak aurkezteko epea, Zornotzako Zelaieta Zentroan.

Banaka zein taldean aurkeztutako proiektuak izan daitezke hautagai aurten 15. aldian egin-

go duen bekan. Bigarren kasu horretan, proiektuaren zuzendaritza arduraduna izendatu beharko da, taldearen ordezkari.

Zelaieta Zentroan jasoko dituzte proposamenak; banaka zein taldeko egitekoak izan daitezke

ri izan dadin. Beka jaso ondoren, egindako lanak aurkezteko epea, urtebetekoa izango da, asko jota.

## Eskola-materiala erosteko diru-laguntzak

### ZORNOTZA

J.D.  
Udalak diru-laguntzak emango ditu datorren ikasturterako, herriko eskolako materiala merkeago eskuratu dezaten. Horrela, familiaren errentak 35.000 euro gordin gainditzen ez dituztenek eskuratu ahal

izango dute diru-laguntza hori. Lau pertsona edo gehiago dituzten familia unitateentzat muga hori 40.000 eurokoa izango da. Diru-laguntzaren zenbatekoari dagokionez, 20 eta 80 euro artekoa izango da, familia unitate bakoitzaren errentaren arabera. Erosketak Zornotzako establezimenduetan egin beharko dira.

Diru-laguntzen eskaerak irailaren 1etik abenduaren 15era egin ahal izango dira.



# Berrizen duela 80 urte fusilatutako herritarrak gogoan izango dituzte

‘Gu ere errefuxiatuak izan ginen’ lemapean erakusketa egingo dute



laz egindako ekitaldia.

**BERRIZ** Maialen Zuazubiskar Irailaren 11 gomuta eguna izaten da Berrizen, frankismoan hildako eta errepresaliatutako herritarrak omendu eta gogoratzeko eguna.

1936an indar frankistek Felipe Urriaga alkatea eta Jose Agirre, Gregorio Urkijo, Fermin Aranguren eta Agustín Milikua herritarrak fusilatzen ondoren, irailaren 11 lagun horiek eta, oro har, frankismoa sufritu zutenak omentzeko baliatzen dute.

Aurten, frankismoa sufritu zuten lagunak omentzeaz gain, ekitaldian munduko errefuxiatuak gogoan izango dituztela jakitera eman dute Berrizko

Udalak eta Berriz 1936 Gogoratzeko Kultur Elkarteak. ‘Gu ere errefuxiatuak izan ginen’ lemapean, garai batean errefuxiatu

18:00etan, frankismoa sufritu zuten lagunak aldeko lore-eskaintza egingo dute

izandakoak eta egun errefuxiatuak direnak gogoan izango dituzte erakusketa baten bidez. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, erakusketak bi zati dituzte. Alde batetik, Euskal Herriko

beste probintzietatik Berrizera etorritakoak herrian nola hartu zituzten azaltzen du erakusketak. Eta, bestetik, zortzi errefuxiatu berriztarren testigantzak ageri dira erakusketan.

Beraz, astelehen honetan gomuta eguna izango dute Berrizen. Arratsaldeko seietan, urtero lez, dantzariak, musika eta lore-eskaintza egingo dituzte Felipe Urriaga enparantzan, eta, ostean, erakusketa egongo da.

Ondoren, Txintxaun kolektiboak testigantzetan oinarritutako istorio bi antzetzuko ditu. Eta ekitaldiari amaiera ‘Ama, nora goaz?’ dokumentalagaz emango diote.

## Txatxilipurdi aisialdirako hezitzaile bila

**OTXANDIO** J.D.

Txatxilipurdi elkarteak Otxandio aisialdi eskaintzarako hezitzaile baten bila dabil. Ludotekan zein udalekuean arituko litzateke, besteak beste. Kontratuaren iraupena urritik 2018ko maiatza amaitu artekoa da. *Curriculum*-ak bidaltzeko azken eguna irailaren 14a da [gazteak1@txatxilipurdi.com](mailto:gazteak1@txatxilipurdi.com) helbidean. Aukeraketan hainbat alderdi hartuko dituzte kontuan: otxandiarra izatea, egindako ikasketak, esperientzia eta herrigintzan duen ibilbidea.

## Gimnasia eta zumban aritzeko ikastaroak

**MAÑARIA** J.D.

Urria hasteagaz batera mantentze-gimnasia eta zumba ikastaroak hasiko dituzte Mañarian. Parte hartzeko izen-ematea astelehenetik irailaren 22ra artean egin daiteke, udaletxean zein liburutegian. Gimnasia 15 euro da hileko eta zumba 25 euro. Kasu bietan %20ko deskontua dute ikasle, langabe eta jubilatuak.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**IDOIA AGORRIA MARTINEZ**

PSE-EE



**Lankidetzaren bidez ahaldundu**

Durango aurrekontuaren %0,7 bideratzen du garapenerako lankidetzara. Proiektu horietako gehienek lehentasuna da lanabesak ematea, onuradunek proiektuak egin ahal izan dituzten etorkizunean gure laguntzarik gabe. Proiektu txiki horietako bat Garabideren bidez egingo dugu. Prestakuntza, esperientzia eta adorea dituzten zenbait durangar Kolonbiako oihaneraino joango dira, nasa yuwe komunitateari hizkuntza-tresnak emateko. Haien hizkuntza indartzeko tresnak dira, gaurdaino hizkuntza hori ahoz transmititu baita denboran barrena, beste asko bezala, eta ez baitu behar bezalako gramatikarik landu. Hizkuntza eta eskola arloko estrategiak emango dizkiegu, euskara berreskuratzeko prozesuan eta helduen irakaskuntzan metatu ditugun estrategiak. Horiek baliagarriak izango zaizkie beren hizkuntzari, kulturari, mundu-ikuskerari eta munduarekin erlazionatzeko duten era bereziari eusteko.

Bestalde, euskal eta nasa eskola-komunitateak —haurrak, gurasoak eta irakasleak— aberastu egingo dira elkarren arteko harreman horrekin, haiek ere mundu-ikuskerari desberdin bat ekarriko digutelako. Munduko Hizkuntza Ondararako UNESCOren Katedra ere elkarlanean ari da proiektuan.

UNESCOren arabera, mende honetan 2.500 hizkuntza galduko dira. Hego Amerika eta Asia dira kaltetuenak. Hizkuntzalariei ustez —eta neuk bat egiten dut haiekin—, hizkuntza bat desagertzen denean, komunitate baten sentitzeko modu osoa galtzen da, bai eta naturarekin eta munduarekin erlazionatzeko era, ohiturak eta kultura ere.

## DURANGALDEA ASTEON

### Andereak taldearen mobilizazioak martxan

**DURANGO** > Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko elkarretaratzeko kanpaina atzo bueltatu zen Durangora. Andereak elkarteak eguenero batzeko deia egin du, 20:00etan, Andra Marian. “Konpromiso aktiboa” aldarrikatu dute indarkeria fisikoaren, desberdintasunen eta menpekotasunen aurrean.

### Astronomi taldearen aurkezpena, gaur

**DURANGO** > Gaur, iluntzeko 20:00etan, Izarra astronomia elkarteak 2017-2018 ikasturteko egitasmoa aurkeztuko du bere lekuan, Intxaurren. Elkarteak, bere txokoa eta antolatzen dituen ekintzak ezagutzeko modu zabal bat izango da. Gainera, zerbait dastatzeko aukera ere eskainiko dute.

### Elkartasun bazkaria, Zaldurreka txokoa

**ABADIÑO** > Bihar elkartasun bazkaria egingo dute Traña-Matienako Zaldurreka elkarte gastronomikoan, sagardotegi-menuagaz. 13:30ean, albokarietako giro-turiko poteoa egingo dute, eta 15:00etan, Aitor Bizkarra eta Altube anaiekin bertso bazkaria. Bazkalostean, trikitalarien emanaldia izango da.

## IRITZIA

[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)  
astekaria 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

### Anbototik

Bilbotik Durangorako Ferrokarril Zentrala 1882ko maiatzaren 30ean inauguratu zen. Garraio bide garrantzitsu hau, bere zabalak eta gorabeherekin, 135 urte geroago mantentzen da. Sasoi hartako geltokiak beste linea batzuk artikulatzen zituen, Zumarragakoa, Arrazolakoa eta Elorriokoa. 1937ko martxoaren 31n abiazio faxistak geltokia bonbardatu zuen. Ondoren, hainbat hobekuntza egin ziren. Trenbidea bikoizteko, trena lurperatzeko, eraikin berri bat eraikitzeke, takilak, andenak eta zentro komertzial bat eraikitzeke nazioarteko lehiaketa bat antolatu zuten. 2004an, Zaha Hadiden proiektua aukeratu zuten, arkitektura deigarri eta garesti batekin. Nazioarteko gustu gabeko arkitektura bat da, inongo erreferentzia historiko eta kultural gabea. EAJk ez du ulertu kultur ondarearen zentzu identitarioa, eta bere ezaugarrietatik, bereziki, ondare

arkitektonikoa bere modalitate guztietan. Aurrekari hauekin, ez da harritzekoa geltoki zaharra Durangoko Udalarik ez interesatzea. Harrigarria da oinarritzko kultura arkitektoniko eta sentsibilitate eza. Gure arerio handienek ere ez lukete hain gaizki egingo.

Eraikin hau iraultza industrialeko eraikin publiko bakkarenetakoa da, gizartearen metamorfosiaren eta nahasketa sozialaren lekuko. Hiri-idiosinkrasia gutxietsita, ezjakintasun eta biolentzia kultural handienarekin bakarrik onar daiteke Durangoko geltokiaren eraisketa. Laburbilduz, bertan behera utzi ezin den ondarea.



## **> Berbaz**

Mikel Etxebarria Etxeita | Aurten Bai Fundazioko presidentea | Zornotza, 1959

# “Gure lana, helburua, euskaradunak sortzea da; gure ametsa, euskarazaleak sortzea”

Zornotzako Barnetegiak 25. urteurrena ospatu du aurten. Aurten Bai Fundazioak kudeatu du urte hauetan guztietan

**> BERBAZ** Aitziber Basauri

25 urte bete dira Zornotzako Barnetegiak atek ireki zituenetik. Urte emankorrak izan dira Aurten Bai Fundazioko presidentea den Mikel Etxebarriaren ustez, “zerbitzu profesional eta kalitatezkoa” ematea lortu dutelako. Hala ere, barnetegiaren berezitasunak aintzat hartuko dituen finantziario marko “egokia” behar dela dio.

**Zornotzako Barnetegiak 25 urte bete ditu. Atzera begiratuta, nolakoa izan da ibilbidea?**

Ibilbide emankorra izan da, eskaintza ona eman delako eta erantzun ona izan dugulako, gorabeherak egon diren arren. Emankorra, oraindik jarraitzen duen irakasle talde indartsua lortu dugulako, profesionalki barnetegiagaz batera hazitakoak. Pozik gaude zerbitzu ona eman dugulako, beharrezkoa zen zerbitzua: Bizkaian urte guztian modu iraunkorrean zabalik dagoen barnetegi bakarra da. Euskararen irakaskuntzan zerbitzu profesional eta kalitatezkoa ematea lortu dugu.

**Aurten Bai Fundazioak kudeatu du hasieratik.**

Bai. Bizkaiko Aldundiagaz batera, udal euskaltegien munduan ibilitako batzuek sortutako egitasmotik datorkio izena fundazioari (1988). Helduei bizkaieraz oinarri-oinarrizko alfabetatze bat emateko egitasmoa zen. Barnetegiak kudeatzeko aukera etorri zen gero. Testuinguru horretan, eskolak eman ez ezik, materiala sortu dugu eta Europan hizkuntza gutxituen aldeko eta hizkuntza aniztasunaren inguruko sare batean ere bagaude, besteak beste.

**Ertzainen promozio bat izan ziren lehenengo ikasleak.**

Bai. Ez zuten nora jo. Euskarak bereak ez zituen zenbait zama zituela ikusten genuen: euskararen irakaskuntza ikuspegi politiko batez lotzen zen. Baina, euskara denon altxorra zela eta, eskaintza profesional eta maila onekoa eman behar genuela erabaki genuen. Etxe hau euskara ikasi gura zuen edono-



rentzat izan behar zuela, eta euskararenganako maitasuna sortzen eta irakaskuntza profesionala ematen saiatu gara, inor deseroso sentitu gabe.

**Aldaketa asko eman dira?**

Euskararen inguruko egoera aldatu egin da asko. Euskara irakasten diharduen edozein talde edo elkartek ez du eragozpenik ertzainei edo beste edonori eskolak emateko. Alderdi sozialistako edo popularreko politikari ezagun askori eman dizkiegu eskolak, eta eroso sentitu dira.

**Euskal Herritik kanpoko ikasleak ere izan dituzue?**

Bai, euskarak nolabaiteko interesa sortzen duelako. Poloniako Poznan unibertsitateko irakurletza bat izan genuen urteetan. Gure irakasleak hara joaten ziren eta hango ikasleak geurera etortzen ziren —horietakoren bat euskara irakaslea izan da—. Euskal diasporagaz ere egin dugu lan eta Etxepare Institutuagaz ere badugu hitzarmen bat.

“**Pozik gaude zerbitzu ona eman dugulako, beharrezkoa zen zerbitzua**”

**25.000 matrikula egin dira 25 urte hauetan?**

Bai. Guztira, 18 bat mila lagun pasako ziren barnetegitik. Kontuan hartu behar da urtean 12 matrikula epe zabaltzen direla.

**Barnetegiaren berezitasunak kontuan hartuko dituen finantziario marko “iraunkor” eta “egokia” behar dela aldarrikatu duzue.**

Bai. Euskararen Plan Estrategikoak ere jasotzen du, eta lortu nahian lanean gaude. Euskara eskolak ematen ditugu, bai, baina ikasleek ostatu hartzen dute hemen. Egun osoz euskaraz jar-

duteko aukera dago eta egunero daude kanpo-ekintzak; udako ikastaroetan asteburuan hemen daudenez irteerak dituzte. Hotelaren modukoa da, 24 orduan zabalik. Gainera, zenbat eta gusturago egon —berogailuagaz, wifi-gaz, ondo janda...— are eta hobeto ikasten dugu; ikasketa prozesuan eragiten du.

**Esan duzunez, euskaradunak sortzea duzue helburu.**

Gure lana, helburua, euskaradunak sortzea da; gure ametsa euskarazaleak sortzea. Hizkuntza bat ikasteko, maitasunezko harremana behar dugu: derri-gortuta, lanpostuak eskatzen dizulako ikasiz gero, ez duzu maitatuko eta beharrezkoa duzunean bakarrik erabiliko duzu. Sasoiak ere asko aldatu dira: garai batean euskara ikastera zertorrena militantea zen, orain motibazioak askotarikoak dira.

**Uda sasoiaren doak jende gehien?**

Bai. Intentsiboagoa egiten dugu jarduna, hala eskatzen digute-

lako. Barnetegiak trinkotasuna eskaintzen du, eta 24 orduz inguru euskalduna: ikasteko tokia, ekintzak euskaraz, giro euskalduna... eskaintzen ditu, ikasitakoa praktikatzeko aukera.

**Zein da etorkizuneko erronka?**

Euskara ikasi gura dutenen beharrezko ahelik eta erantzun egokiena ematea. Kalitatezko zerbitzua ematea. Urteotan erabilera indartu da, baina, erabiltzeko, jakin egin behar da.

**Ezagutza eta erabilera ez daude maila berean.**

Kosta zait hori onartzea, erakusteko zein ikasteko egindako ahalegina ikusita. Horren atzean motibazioa, hizkuntzarekiko jarrera daude; ingurua eta hitz egiteko aukerak. Hizkuntza batean zenbat eta hobeto moldatu, orduan eta gusturago ari gara, errazago sartzen gara elkarriketan. Erabilera inportantea da, baina ezagutu gabe ezin erabili! Horretan eragin gura dugu.



# Durango mugikortasun jasangarriagaz duen konpromisoa erakusten du egitarau zabala eskainiz

Autorik gabeko asteburua, ekintzaz blai!



## MUGIKORTASUNA

Beste urte batez, Durango herria European egiten den Mugikortasun Jasangarriaren Astearen mugimendura batuko da. "European Mobility Week" delakoa 2002. urtean sortu zen, herritarrak autobusean, bizikletan eta oinez ibiltzearen hautuaz kontzientziatzeko asmoz. Ekimen hau irailaren 16tik 22ra egiten da urtero, eta europar komisio politikoaren laguntza politiko osoa dauka. Durango bere egin du aspalditik ekimen hau, eta aurten ere publiko guztiari zuzenduta eta guztiz doakoa izango den ekintzaz jositako egitarau oparoa sortu du. Aurten, berrikuntza batez gatz, #durangomugituz lehiaketa.

## Bizikletarte

Bizikletartek, mugikortasun jasangarriaren inguruko interbentzio artistikoen lehiaketak, laugarren edizioa bete du aurten. Ekimen honek herritarren ahalmen artistikoak azalatzeko du helburu, mugikortasun jasangarriaren inguruan kontzientziatzen duen bitartean. Dagoeneko badugu irabazlea, eta bere obra irailaren 16tik 22ra izango da ikusgai Durango kaleetan zehar. Sari banaketa hilaren 15ean, barikua, izango da, 12:00etan, udaleko osoko bilkuran.

## Spinning Maratoia

Aurten Durango Kirolak-en eta Simply hipermerkatuaren laguntzagaz, bigarren Spinning Maratoia antolatuko da Ezkurdi plazan, irailaren 16an, zapatuan, 11:00-14:00 bitartean. Hiru orduko saioz gozatze-ko aukera izango dugu udako gehiegikeriei aurre egiteko eta izerdi pixka bat botatzeko. Ekintza honetarako, 25 plaza izango dira, eta bertan parte hartzeko, [durangokomugikortasunastea@gmail.com](mailto:durangokomugikortasunastea@gmail.com) helbidean eman daiteke izena,

norberaren izen-abizenak eta telefono zenbakia bidalita.

Gainera, Durango Simply hipermerkatuaren laguntzari esker, janari eta edari energetikoak izango dira eskuragai indarrak berreskuratzeko.

## Autorik gabeko asteburua

Irailaren 16ko goizean oinezkoek Durango kaleak hartuko dituzte. Ezkurdi plaza izango da erdigune egun honetan, eta hainbat ekintza antolatuko dira gazte zein helduentzat. Mugikortasun jasan-

garria sustatzeko eta, bide batez, ondo pasatzeko aukera polita izango da. Ekintzen artean, bizikleta martxa familiarra, Spinning Maratoia, Gymkana, bigarren eskuko bizikletaren inguruko azoka, puzgarriak eta bizimakinak izango dira.

## "Don't be Dummy, zuk ez duzu ordezkorik"

Barikuan, irailaren 22an, "Don't be Dummy, zuk ez duzu ordezkorik" ekimena aurkeztuko dute San Agustin Kultur Gunean. Programa hau Eusko

Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak jarri du martxan ikasturte honetan, gaur egungo gazteak mugikortasun seguru baten inguruan kontzientziatzeko.

Aurkezpena Durango heziketa zentroetako ikasleei egingo zaie. Horretarako, Segurtasun Sailak Stop Accidentes Elkartearen laguntza izango du. Saio bakoitzak trafiko istripu eta bide segurtasunaren esparruko profesionalen testigantzak izango ditu.

## Bizikleta martxa familiarra

Familian asteburuz gozatze-ko aukera ezin hobea izango da. Bizikleta martxa familiarra zapatuan izango da, eta 10:30ean aterako da Ezkurditik. Helduei zein gazteei zuzenduriko martxa honek 5 kilometro inguru izango ditu. Herrialdearen barne aldetik igaroko da eta Durango Txirrindularitza elkartearen laguntzagaz egingo da.

## Bigarren eskuko bizikleta azoka

Zapatuan bertan, bigarren eskuko bizikletaren inguruko azoka izango da, Ezkurdi, 10:00etatik 14:00etara. Azoka honetan, bizikletagaz zerikusia duten edozein objektu saldu edo erosteko aukera egongo da. Saldu nahi izanez gero, Ezkurdira eraman behar da objektuak, azoka hasi baino 30 minutu lehenago gutxienez.

## Sare sozialetan lehiaketa

Mugikortasun Jasangarriaren Astearen baitan, lehiaketa bat antolatu da sare sozialetan. Lehiaketa hau bizikletagaz zerikusia duten eduki audiobisualak partekatzean datza #durangomugituz traola erabilia. Argazki edo bideo-rik originalenak eramango du saria etxera.

### DURANGOKO MUGIKORTASUN ASTEA 2017

Irailaren 16tik 22ra

**Ostirala, irailak 15**  
**Udaletxeko osoko bilkuran**  
12.00 Bizikletarte interbentzio artistikoen lehiaketaren sari banaketa

**Aste osoan zehar**  
2. DBHko klaseei zuzenduriko bizikletaren aspektu teknikoaren inguruko ikastaro teoriko-praktikoa

Bizikletarte lehiaketako obra irabazlearen kale erakusketa

**Larunbata, irailak 16**  
**AUTORIK GABEKO ASTEBURUA**  
Ezkurdi Plazan \*

10.00-14.00 Bizikleta Gymkana  
10.00-14.00 2. Eskuko bizikleta azoka  
10.00-14.00 Bizimakinak, egin ezazu ogi birrindua pedalei eraginez!  
10.00-14.00 Puzgarriak  
10.30-11.30 Bizikleta martxa familiarra  
11.00-14.00 Spinning Maratoia


\*Eguraldi txarra eginez gero, ekintzak Andra Mariko arkupean burutuko dira

**Ostirala, irailak 22**  
**San Agustin Kultur gunea**  
10.00-13.00 "Don't be dummy, zuk ez duzu ordezkorik", errepideetan bizitako testigantzak.




# Txori Festa

Zer egiten dute txori hauek denek teilatuan geldirik? Oso galdera ona da, baina hurrengo baterako utziko dugu. Momentuz, bila ezazu parrerik ez duen txoria. Hirukote bat ere badago, zeintzuk osatzen dute?




[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)

**Itzala** Zure ustez, zer egin behar da Herri Urratsera joateko? Ba, hasteko eta behin, ondo gosaldu. Bilatu itzal zuzena ondoko mokadu oparo honi.



# MINAAAAA!!!!

Ai, ene! Neskato pinpirin hau Xune da, eta bakar batek hozka egin dio besoan. Ikusi al duzu zer-zer hozka?! Aurreko hortz guztien marka utzi dio-eta. Nor demontre izan ote da, Elaia? Oier? Lagundu irakasleari nor izan den asmatzen, bi hitz egin beharko dizkio-eta.



Horra, Fermintxo Bihurritxo, zuretzat pila bat kroketa goxo. Utzi behingoz jolasak txakurtxo, Eta zatoz galdu gabe, kontxo



**LABIRINTOA**  
Lagundu txakurrari bidea aurkitzen.


Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.





### BiKiak

Zazpi irudi hauek berdinak dirudite, baina ez dira berdinak. Aurki itzazu elkarren kopia diren bi irudiak.



IZARO



Xune nire hiper laguna da. Nik muxuak ematen dizkiot, beti, beti eta beti.



IRATI

Ui, ui, ui, nik kasu egitea besterik ez nuen nahi...



RKA

EIDER



Horra hemen hozkaren marka, lupaz handituta. Horiek bai hortz zorrotzak!

Nik ez dakit zer gertatu den, meriendarako marmeladaren bila joan naiz. Ummm! Bai goxoa!

Dik dola egingo gdion ba hodszka! Edzinedzkoa da: burgdin arltean presxo didud horzz guzzdiak! \*



UNAI

\* Nik nola egingo nion ba hozka! Ezinezkoa da: burdin artean presxo ditut hortz guztiak!

Besoan oso txitxi gutxi dago, nik masailean egingo niokeen... Edo ipurdian!



GAIZKA

Kids&Us  
school of english

ENGLISH FOR LIFE

Ingelesa urte 1etik aurrera

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!

Kids&Us Durango · Durangoko Plateruen Plaza, 8 · T. 609 533 343 · durango@kidsandus.es





Hizkuntza Escuela Oficial  
Eskola Ofiziala de Idiomas

Hizkuntza eskolan?

Bai. Ikasi euskara

Ja. Lernen Sie Deutsch

Oui. Apprenez le français

Yes. Learn English

### Esperientzia handia

1994tik Durangon

### Hizkuntzak

Euskara, alemana, frantsesa  
eta ingelesa.

### Mailak

A1 - A2 - B1.1 - B1.2 - B2 - C1

### Orduak

Astean 4:30 ordu, egun bitan

### Titulu ofizialak

A2 - B1 - B2 - C1

### Prezioa

72,36 €  
ikasturte osoa

### Matrikula

On-line

1. fasea: irailaren 1etik 18ra

2. fasea: irailaren 18tik urriaren 4ra

Urriaren 25ean: presentziala

### Gogoratu

Euskara C1 semipresentziala:  
2 talde

Ordutegi zabala

Alemana C1

[www.eoidurangoheko.hezkuntza.net](http://www.eoidurangoheko.hezkuntza.net)  
94 620 33 42 - 94 681 66 45





## Karrikaren 'Deshakespeareazioa' antzezlanari doinua ipini dio musika eskolako soka taldeak

Ikasturte honetan Durangoko San Agustin antzokiak hartuko duen lehenengo estreinaldia eskainiko dute



Gorka Madrazo Karrikako kidea, Arantza Arrazola San Agustingo arduraduna eta Eunat Zarrabeitia musika irakaslea.

**> PROGRAMAZIOA** I. E. 2016ko azaroan, Plateruenak antolatutako *Hitzari Gorazarre* ekimenaren barruan eskaini zuen Karrikak *Deshakespeareazioa* obraren lagin bat lehenengoz, eta Durangoko Azokan ere izan zen ikusgai. Obra labur hura berrartu, eta haren drama-

turgia moldatzen jardun dira Karrikako kideak azken hilabeteetan. Besteak beste, *Hamlet* eta *Uda gau bateko ametsa* obrak baliatuta, William Shakespeareren bizitza kontatzen du lanak, komedia eta drama uztartuta.

Aste Santu bueltan, Bartolome Ertzilla musika eskolako

ikasle talde bat batu zen Karrikaren proiektura, Eunat Zarrabeitia irakaslearen eskutik. Durangoko antzerki taldekoen lanari zuzeneko musika gehitu diote Musika Eskolako 15 eta 19 urte arteko biolin, biola eta biolontxelo ikasleek. Aktore eta musikariak batuta, guztira

24 lagun igoko dira agertokira *Deshakespeareazioa* lana ohol-tzaratzeko. Bi emanaldi eskainiko dituzte San Agustinen: irailaren 29an eta 30ean, 20:00etan.

### Elkarlana aberasgarri

Antzezlan horretaz berba egiteko, Gorka Madrazo eta Eunat Zarrabeitia gonbidatu zituzten ikasturte hasierako San Agustingo programazioa aurkezteko agerraldira. Kulturgunean bertan egin zuten, eguaztenean.

Madrazok zein Zarrabeitiak nabarmendu zuten esperientzia oso betegarri eta dibertigarria izaten ari dela antzerki taldearen eta musika ikasleen arteko elkarlana. "Musikari moduan oso inportantea da ikasitakoa erabiltzea, esperimentatzea" azpimarratu zuen Zarrabeitiak. Aktoreek musikariekin ohol-tzan daukaten "interakzioa" oso aberasgarria dela adierazi zuen Madrazo Karrikako kidea.

### Abendura arte, 12 ikuskizun

Irailaren 17tik abenduaren 30era arte Durangoko antzokiak hartuko duen kultur eskaintza aurreratu zuen Arantza Arrazola San Agustingo arduradunak,

herenegungo prentsaurrekoan. Azaldu zuen 12 ikuskizun programatu dituztela, eta horietarikoa batek, Karrikaren lanak bezala, Shakespeare duela ardatz. Urriaren 28an eskainiko dute Patxo Telleriak idatzi eta zuzenduriko *Los amantes del casco viejo*. Shakespeareren *Romeo eta Julieta* interpretatu behar duen aktore bikotearen istorioa da Telleriak idatzirik hori.

Ikusle helduentzako antzerki eskaintzagaz jarraituz, Malagako La Líquida Teatro taldearen *Hambre* eta Khea Ziater-en *Los Visitantes* nabarmendu ditu Arrazolak. Lehenengoa eszenaratze berritzailea daukan obra da, gizakiaren behar primitiboenei buruzkoa. Bigarrena *talk show* deritzon formatuan dakarte. Inprobisazioak garrantzi handia du Asier Etxeandiak, Valeri Tassok, Enrico Barbarok, Txubio Fernandez de Jauregik eta Arrate Etxebarriak azaroaren 19an eskainiko duten antzezlan horretan.

Besteak beste, Elorrioko Logela Multimediaren *Drag-e uraren bila* eta Jon Maiak sorturiko *Ele! Lauxeta-Lorca* obraren emanaldiak jasotzen ditu San Agustingo udazkeneko egitarauak. Atzotik daude salgai ikuskizun guztietarako sarre-rak (Museoa obregatik itxita dagoenez, salmenta zuzeneko zerbitzua San Agustinen eskainiko dute).

## Igartza saria jasota, bere lehenengo nobela idatziko du Miren Amurizak

Atzo eman zuten jakitera berriztarra dela aurtengo Igartza sariaren irabazlea

**> LITERATURA** I. E. Elkar argitaletxeak atzo jakitera eman zuenez, Miren

Amuriza (Berriz, 1990) bertso-laria da aurtengo Igartza sariaren irabazlea. Amuriza be-

rriztarraren *Paperezko txoriak* proiektua aukeratu dute Elkar argitaletxeak, CAF enpresak eta Beasaingo Udalak antolatzen duten literatur lehiaketaren XX. edizioako irabazle gisa. Atzo iluntzean egin zuten sari banaketa ekitaldia Beasainen.

Sabina Leizardi, bere alaba Karmele eta biloba Oihal dira Bizkaiko herri txiki bateko baserri batean kokaturiko Amurizaren istorioko protagonistak. Bakardadea, zaintza, zaurgarritasuna eta suizidioa dira nobelako gaietako batzuk.

Unai Elorriaga, Karmele Jaio, Uxue Alberdi, Katixa Agirre, Jon Martin eta Kattalin Miner izan dira, besteak beste, Igartza Sariaren aurreko edizioetako sarituetako batzuk.



'Paperezko txoriak' proiektua da aurkeztu du Amurizak sariketara.

## Cannock perutarrari Begirako saiakera saria

Durangoko Begira jaialdia lehenengoz antolatu du argazkigintzari buruzko saiakera lehiaketa

### > ARGAZKIGINTZA

I. E. Alejandro León Cannock (Lima, 1980) perutarrak irabazi du Durangoko Begira Photo jaialdia lehenengoz antolatu duen argazkigintzari buruzko saiakera lehiaketa.

*El devenir imagen del mundo. Anotaciones sobre la revolución fotográfica* da Durangoko lehiaketako epaimahaiak Alejandro León Cannocki sarituz lana, eta 800 euroko saria eman diote. Argazkigintzaren iraultzak mundua irudi bihurtzeko bere helburua lortu duela defendatzen du irakasle, ikerlari eta sortzaileak bere idatzian.

Argazkigintza garaikideari buruzko Durangoko jaialdiko

ekintzen osagarri, adierazpide horren inguruko ikerketa bultzatzeko helburuagaz antolatu du Begira Photok saiakera lehiaketa hau, lehenengoz.

Urriaren 26tik azaroaren 18ra arte, askotariko tailer eta erakusketekin ospatuko dute argazkigintza garaikidearen inguruko jaialdia, Durangon. Zazpigarren Begira Photo izango da aurtengoa.

'El devenir imagen del mundo. Anotaciones sobre la revolución fotográfica' testuari eman diote saria



# Paule San Salvador del Vallek '22' liburuan utzitako bizi irakaspenna

Paule San Salvador del Valleren eguneroko literarioa argitara eman dute haren hurrekoek. Minbizia diagnostikatu aurretuan hasi zuen

**> LITERATURA** Itsaso Esteban 22 urte gaz koloneko minbizia eta gibekeko metastasia diagnostikatu zioten Paule San Salvador del Valle durangarrari. Hiru urte baino gehiago iraun zuen minbiziaren kontrako borrokan zehar idatzitako testuak biltzen ditu San Salvador del Valleren familiaren eta lagunen ekimenez argitaratu berri den 22 liburua.

Diagnostikoa jaso aurretuan, 2013ko abuztuaren 2an, hasi zuen San Salvadorrek liburuko eguneroko literarioa, eta bere bizitzako urtebete pasatxo horretako kronika egin zuen. Gogoetarako berbak dira liburukoak; minbiziari buruzkoak baino, bizitzari buruzkoak. Parte hartzen zuen idazketa tai-

lerrera sortutako hainbat literatur testu ere biltzen ditu lanak, eta gustuko idazle eta pentsalarien aipuak ere bai. Heriotzari eta gaixotasunari ezizusiarena egin barik, San Salvadorrek liburuan dioen bezala, "hobeto bizitzen ikasteko" prest dagoen edozein irakurlerentzat, liburu benetan baliotsua da 22.

Hein handienez gaztelaniaz idatzita dagoen liburua azal-hegalean honako gonbitea egiten dio gazte durangarrak irakurleari: "Izan zoriontsu, edozer delarik ere hori. Egin irribarre, lagundu, eman, jaso apaltasunez, barkatu, maitatu, egin negar, egin barre, sufritu (neurrian), ibili, eta batzuetan, egin korrika oso bizkor. Egizu lo, gozatu jaterakoan, jo larrua,



Pauleren mutil lagunaren amak, Valéry Honnart artistak egin du azaleko irudia.

ikasi, hazi. Gero, bizitzaren instant bakoitzari zuku aterata, dagokion unean hiltzeko".

**Gogoetarako berbak dira liburukoak; minbiziari buruzkoak baino, bizitzari buruzkoak**

Eva Rodriguez, Jesuitak ikasitxean bere irakasle izandakoaren eta Jon Sanchez lagunaren bultzadagaz eta babesagaz hartu du Javier San Salvador del Valle Pauleren aitak liburua argitaratzeko lana. Paule urtarrean hil zen, eta handik lasterrera ekin zioten edizio lanari. Abuztutik kalean daude 200 ale. Durangoko Hitz eta Urriko liburudendetan eskuratu daiteke dagoeneko, eta Amazonen ere eskainiko dute.

Albaceteko Uno editorialagaz argitaratu dute 22, Paulek orri batean idatzita utzi zituen "izenburu posibleetatik" borobilduta zegoena hautatuta. Azaleko ilustrazioa Pauleren mutil-lagunaren amaren, Valéry Honnart artistaren, obra da.

Liburua argitaratzeko prozesua "ikaragarri lagungarria" egin zaiola azaldu du Javier San Salvador del Vallek. "Oso harro nago egin dugun lanagatik eta sentitzen dudalako nire alaba ez zela mundutik beste barik pasa-

tu, utzi duelako zerbait, eragin bat izan duelako".

Hasiera-hasieratik, eta indar guztiagaz, "gaixotasunari desobedientzia" egitea erabaki zuen Paulek. Bere aitak azpimarratu duenez, baina, "bizitzen jarraitzeko borroka eta indarra ez ezik, min ikaragarri bat" ere islatzen du alabak idatzitako liburua. "Berarentzat zein ingurukoontzat oso gogorra izan zen prozesua", dio.

Liburuan kontatzen den aldian, hoberanzkoa zen joera; "Kimioterapiak, operazioek... funtzionatzen zutela ematen zuen", azaldu du Javierrek. Horrela, momentu gozoan amaitzen da liburua: ilusioz gainezka, Paulek Bruselarako bidea hartzen duenean. Onkologoen konplizitateagaz, kimio zikloak moldatu, eta *au pair* moduan lan egitera joan zen.

**Liburua argitaratzea "ikaragarri lagungarria" egin zaiola azaldu du Javierrek, Pauleren aitak**

Handik lasterrera gaixotasuna berriro agertu zen. Baina Paulek ez zuen bizitzeko grina galdu. Bruselara joan zen berriro, aukera izan zuenean. Han ezagutu zuen ordutik ondoan izan zuen Basile mutil-laguna.

## GEURE DURANGALDEA

**JON ANDER URKIAGA EGIDAZU**

Irakaslea



### Kateak eta iparrorratzak

Kateak kate izaten dira beti, baina neurri eta pisu igualtsuko kate bik ez dute beti modu berean murrizten askatasuna; edo, bai, baina pertzepzioa guztiz bestelakoa izan daiteke. Izan ere, ez da gauza bera girgiluak norbere eskumuturretara kanpotik heltzea, bortxaz, edo norbera izatea norbere espetxezain.

Sekula ezin izan ditut ulertu ETBren zenbait irizpide. Esaterako, zer dela eta agertu behar den Gaur Egun albistegian Espainian barrena galduriko A-23 autobidean gertaturiko ez dakit zelako istripu ikusgarria eta ez Mozambikekoa. Adibidez, zer dela eta agertu behar den Gaur Egun albistegian Murtzian gertaturiko sute baten inguruko albistea eta ez Sizilian gertaturiko bati buruzkoa. Kasurako, zergatik agertu behar den Madrilen galduriko urliaren gaineko informazioa eta ez Dublinen desagertutako sandiarena.

Jakina, ondorioz, demagun Muskildiko herriko etxean gerta zitekeen lapurretaren berri, ematekotan ere, inork ikusiko ez duen Iparraldearen Orena albistegian emango du ETB 1ek.

Azal diezadala norbaitek zer egiten duen 10 urte eskaseko ume batek adierazpenak gaztelania txukunean egiten, ikasturte hasieraren inguruko albiste baten harira, non eta ETB 1en. Ez naiz ulertzeko gai.

Baina EITBri kritika merketan aritzea inork leporatu ez diezadan, esperantzarako tartetxo bat ere utzi nahi dut, hain zuzen ere, Euskadi Irratiak, orain arte behintzat, azken urteetan goizero eskaini izan digun itxaropen izpia. Euskararen herri osotik heltzen zaizkigulako eguraldiari buruzko anotazioak, herritar euskaldunek bezain euskal herritarrek emanak, kate guztietatik libre. Bustitzen gaituen euriak eta berotzen gaituen eguzkiak, behintzat, herri egin gaitzatala luzaroan.



2013ko abuztuan hasi zuen Paulek egunerokoaren idazketa.

**Egunen batean**  
Behibi's

Irailaren 17an  
18:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GUINEA

**EGUNEKO MENUA**  
Astelenehietik larunbatera

**JAT ETX EA**

**TALDEENTZAKO MENU ETA OSPAKIZUN BEREZIAK**

PLATERUENA Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jatexea@plateruena.net  
www.plateruena.eus



Javier Aguirre Erdoiza (Durango, 1966) | TransplantBike bizikleta martxako sustatzaileetako.

## “Gogorrena ez zen izan transplante bat beharko nuela pentsatzea, kirola utzi beharko nuela entzutea baizik”

Bilboko TransplantBike martxa antolatzen dihardu; transplantea eta kirola bateragarriak direla erakutsi gura dute

> **KIROLA** Joseba Derteano

Borondateagaz eta adituen laguntzagaz transplante bat igaro duen edonork kirola maila onean eta arriskurik barik egiten jarraitu dezakeela dio Javier Aguirrek. Mezu hori lau haizetara zabaldu gura dute, domekan, Bilboko TransplantBike martxan. Edonork parte hartu dezake.

**Zenbat urte eman zenituen giltzurrunetako gaixotasunagaz?**

30 urteagaz diagnostikatu zidaten, eta 15 urtean zaintzen egon nintzen. Tratamenduan ere bai, baina, batez ere, zaintzen. Endekapenezko gaixotasuna zen, eta 18 hilez dialisia egin behar izan nuen. Giltzurrun transplantea 2014an egin zidaten.

**Betidanik gustatu izan zaizu kirola?**

Bai, betidanik. Durango Rugby Taldean aritu nintzen eta sorrerako taldekoa naiz. Errugbia utzi ostean, bizikletan zentratu nintzen.

**Hain kirol zalea izanda, gaixotasuna eta bere ondorioak barneratzea kostatu zitzaizun?**

Niretzat gogorrena ez zen izan, esaterako, transplante bat beharko nuela pentsatzea. Une hartan gehien amorratu ninduen lehiaketazko kirola utzi behar nuela entzutea izan zen. Horixe esan zidan medikuak.

**Orduan bizikletan zenbiltzan?**

Bai. Hasieran ez neukan informaziorik, ez neukan nori aholkatu, eta bizikleta apur bat alboratu egin nuen, beldurratik. Gero, apurka-apurka, jende bat ezagutzen hasi nintzen: transplantea izandakoren bat, Sonsoles Hernández entrenatzailea... Apurka zer eta zelan egin ikasi nuen. Medikua ez da arriskatzeko. Kirola “gutxi eta astiro”, esaten dizu. Baina frogatuta dago ondo zainduta eta gaian aditua den entrenatzaile batez kirola onuragarria dela. Dialisia hasi nuenean, lan baten moduan hartu nuen. Baja eman zidaten, eta lagunei esaten nien: “Astean dialisia hiru bider egiteko eta saiotik saiora gimnasio-



ra joan eta zaindu nadin ordaintzen didate. Ebakuntzaren eguna heltzean, paziente perfektua izan nadin”.

**Kirola egiteko modua asko aldatzen da gaixotasunaren aurretik eta ostean?**

Ez. Giltzurruna transplantatuta dugunok hidratazioa asko zaindu behar dugu. Horregaz eta elikadura orekatu batez pertsona normal baten intentsitate ia berdinean egin dezakezu kirola. Begira, Bilboko martxan parte hartuko duen bat Dani Lopez katalana da. Transplante bat igarota, estatuan Iron Man bat eta Titan Desert erronka egin dituen lehenengo pertsona da.

**Aipatu duzu hasieran, gaixotasunaren berri jakitean, ez zenukela informazio askorik. Orain errazagoa da?**

Sare sozialak, internet... gero eta informazio gehiago dago.

“**Frogatuta dago ondo zainduta eta aditu baten laguntzagaz kirola onuragarria dela**”

Bilboko martxak informazio hori ematea ere badu helburu. Horrelako kasuren batean nora joan zaitezkeen, zer egin dezakezun... hau da, prozesu horri ez zaiola zertan bakarrik aurre egin zabaltea da helburua. Ildo horretako hainbat postu egongo dira.

**Bilbon antolatzen duzuen martxa hori lehenengo da?**

Iaz Lleidako Alfarrás herrian antolatu zen, formatu txikiagoan. Baina hiri handi batean egingo den lehenengo izan-

go da. Transplant plataformaren eta Jaume Arnó fundazioaren artean antolatzen dute. Zornotzako Urgezok eta Bilboko Bilbaina elkarteek ere lagundu dute. Organoen, medularen eta odolaren donazioaren garrantzia zabaltea eta gaixo kronikoengan zein transplantatuegan ariketa fisikoa sustatzea dira helburua. Eta, jakina, aurrera egin daitekeela erakustea. Transplante baten ostean kalitatezko bizitza egin daiteke, edonoren moduan. Anbulantzia medikalizatu bat egongo da eta transplantatu guztiek analisiak egiteko aukera izango dute, lasterketaren aurretik eta ostean. Analisi konpletua izango da.

**Zein izango da ibilbidea?**

50 eta 100 kilometroko ibilbide bana izango dira. Edonork parte hartu dezake. Esaterako, Marino Lejarreta arituko da. Barikura arte izen-ematea [\[plantbike.com\]\(http://plantbike.com\) webgunean egin daiteke; Zapatuan Deustuko Ziklos Deusto dendan eta baita lasterketaren egunean bertan ere.](http://www.trans-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

**Martxagaz batutako dirua nora bideratuko duzue?**

Gurutzetako eta Galdakaoko ospitalen artean banatuko dugu. Zati bat pedalak erosteko izango da, dialisia ariketa hori egiten da eta, pedalei eragitea. Batzuek txarto pasatzen dutelako dialisia. Tentsioa jaisten zaie, zorbioak izaten dituzte... Beste zati bat ikerketera bideratuko da.

**Aurten munduko txapelketan parte hartu duzu. Zelan joan zen? Gustura geratu zinen?**

Transplantatuen munduko triatlói txapelketan aritu nintzen, Malagan. Barikutik domekara egun bakoitzean proba bat egin genuen, gehiegizko esfortzuak ekiditeko. Korrikakoa izan zen lehenengoa, eta uste baino hobeto aritu nintzen. Bizikletan, gusturen sentitzen naizen modalitatean, ez nuen pozik amaitu. Igerian, berriz, espero nuen mailan aritu nintzen. Azkenean, laugarren geratu nintzen, brontzetik segundo bira.

**Segundo bira besterik ez? Amorrua eman zizun?**

Tira, emaitza gutxienekoa da. Hara joateak eta ondo pasatzeak du benetako balioa. Ezagututako jendeagaz eta jasotako esperientziekin geratzen naiz. Gogoan dut iaz Finlandian izan zen munduko txapelketan 15 urteko neska herbeheriar batez izan nuen solasaldia. Bihotza transplantatuta zeukan. Proba amaitu zenean zelan aritu nintzen galdetu zidan. Zortzigarren amaitu nuela erantzun nion. “Zorionak, honaino etorri eta proba amaitzea lortu duzu”, esan zidan bizkarrean zaplada bat emanda. Horrelako bizipenak dira inportanteak.

**Errepideko Espainiako txapelketa irabazi duzu aurten.**

Bai, Kirol eta Osasunaren Txapelketa da izen ofiziala. Avilan izan zen. Ez nuen nire adin tartean irabazterik espero, egia esanda. Baina, berriz, ezagutu nuen jendeagaz geratzen naiz.



# Zornotza STk azken unera arte defendatuko du bulegoetan kantxan irabazitakoa

Kirol Kontseilu Gorenaren ezezkoa jaso ondoren, bide judiziala hasi dute Audentzia Nazionalaren bidez

## > SASKIBALOA J.D.

Azken asteetan muturreko laztzak jaso ditu Zornotza Saskibaloia Taldeak, baina oraindik

ez daude amore emateko prest. Lehenengo, Espainiako Saskibaloia Federazioak Zilarrezko LEB Ligatik kanpora utzi zituen

dokumentu bat epez kanpo aurkezteagatik, eta, ondoren, aste honetan bertan, Kirol Kontseilu Gorenak atzera bota du erabaki

horren kontra jarritako helegitea. Beraz, bide judizialaren aukera bakarrik geratzen zaie, eta horri heldu diote. Audentzia Nazionalan helegitea jarriko dute. Bide honetatik ere ezer lortu ezik, gizonzkoen talde nagusia desagertu egingo litzateke. Zilarrezko Ligan parte hartu ahal izateko ordainketa agiria hiru ordu berandu aurkeztea da Zornotza STren pekatua. Gainerako dokumentazio guztia sasoz aurkeztu zuten. Joxe Etxebarria klubeko presidenteak gogor kritikatu du erabakia. "Ez zaie ardua jokalariek kobratzen duten ala ez, baina, hori bai, ezin zaie hiru ordu berandu ordaindu", azaldu du.

Egunotan elkartsun mezu ugari jaso dituzte. Esaterako, Zornotzako Udalak klubaren egoera "bidegabea" salatu du udal adierazpen baten bidez.




Azken urteetan Urrezko Ligara igotzeko fasea jokatu du Ametx Zornotzak.

## ADITUAREN TXOKOA

**KEPA ARROITAJAUREGI EGANA**

Pilota teknikaria



### 'Lagunartekotik' ofizialera

San Antolin feria bukatuta eta San Mateoen esperoan, atzo jada aurkezpena egin da, esan liteke udako partiduak alde batera ixteko tan direla eskuzko pilotari bizkaitar nabarmenenak. Lau t'erdikoa, binakakoa, buruan izango dituzte jada Urrutikoetxeak, Elezkano II.ak, Larunbek eta konpainiak. Gure pilotari profesionalak forman daude eta hori nabarmendu da Lekeition. Urrutikoetxea izan da beste behin nabarmenena, baina beste biek ere oso maila ona eman dute. Mikelek beste konpromiso handi bat du Logroñon, Irribarriarekin bikote, baina orain arteko bere lanak bikainak izan dira. Horrez gain, poztekoa baita ere Aretxabaleta berri kantxan ikustea, Ibai Zabala irribarrez eta motibazioz beste ebakuntza baten ostean, Elordi maila onean aritzea,...

Dena den, udazkenerako bide honetan pilotari bizkaitar amateurrak ere aipatu nahi ditut, Durangaldeko asko. 'Desafio' berezi bat dute bihar bertan hasita. Lehen aldiz bote luzea jokamoldean lehiatuko dira. Euskal pilotako joko zuzen antzinakoena berreskuratzeotan ari da euskal federazioa eta Euskal Herriko txapelketaren II. edizioa jarri du abian. Euskadiko txapela dute helburu.

Bizkaiko ezker hormako txapelketa ere asteburuan hasiko da, eta, laster, banakako Baque txapelketa ere (ia osorik Iurretan), eta bertan Durangaldeko pilotari ugari. Denei zortarik onena denboraldi hasiera honetan.

## Bote luzeko pilota partiduak Berrizen

Bizkaiko selekzioak lehenengoz jokatu du

### > PILOTA J.D.

Euskadiko Pilota Federazioak esku pilotaren bote luzea modalitatea berreskuratzeko ahalegina hasi zuen, iaz, Euskadiko txapelketa antolatuta. Lapurdiko eta Gipuzkoako selekzioek parte hartu zuten. Aurten, Araba ez beste, Euskal Herriko probintzia denak animatu dira, eta Bizkaiko selekzioak Berrizen jokatu ditu etxeko partidu denak.

Estreinaldia zapatuan izango dute, 17:00etan hasiko den jaialdian. Bizkaiko selekzioak iazko txapelduna den Lapurdiren kontra jokatu du Berrizburuko frontoi irekian.

Bizkaiko taldean eskualdeko hainbat pilotari daude (Antxia, Aspuru, Arabiourrutia, Gonzalez, Amantegi, Martin eta Elguezabal) eta horietako batzuk Berrizen arituko dira.

Aurretik emakumeen paleta goma zirkuituko laugarren jardunaldiari dagokion partidua jokatu dute Olatz Arrizabalagak eta Laura Saezek (iazko txapelduna) Miren Goikoetxearen eta Itsasne Agirreren kontra.

Partidu denak frontoi irekian dira eta, egun euritsu iragarrita dagoenez, baliteke partiduak egunez aurreratu edo atzeratu behar izatea.

## Karregal-Agirreamalloa, lehia ederren sinonimo

Olazar txapelketa hasiko dute egunean

### > PILOTA J.D.

Olazar pilota txapelketak duen prestigioak merezitako partidugaz hasiko dute aurtengo 30. aldia datorren egunean. 2017an lau t'erdian elkarren kontra aritu diren ikuskitun ederra eskaini duten pilotari bik neurtuko dituzte indarrak 21:30etik aurrera: Gaizka Karregal galdakoztarrak eta Josu Agirreamalloa markinarrak.

Maiatzean, Bizkaiko txapelketako finalean, 22-20 nagusitu zen galdakoztarrak, eta biek izan zituzten partidua irabazteko aukerak. Zornotzan, Master

Kaiola txapelketako gazteen finalak ere protagonista berak izan zituen. Orduan ere Karregalek irabazi zuen beste partidu orekatu batean: 22-19. Maila paretua dute eta sasoi badaude emozio handiko partidua izango da.

Ondoren, binakako partidua jokatu dute Urbietak eta Aizpuruk Albaradoren eta Lizeagaren kontra.

Lau t'erdian 16 pilotari eta binaka 16 bikote arituko dira lehia hiru hilean. Gorka Otaduy berriztarra da eskualdeko ordezkari bakarra. Peru Labaka aurrelariagaz jokatu du.

**UXARTE**  
SAGARDAOGINTZA  
Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com

ZABALIK  
OSTIRALETAN ETA  
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR  
ENKARGUZ  
Gutxienez 15  
laguneko taldeentzako

**Albisteak eta agenda,** bizkor eta eskura.

**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

**Parte hartu,** galderak eginez, erantzunak lortuz.

**Pertsonalizatu,** zure herria aukeratzuz.

**DESKARGATU DOAN !**



**anboto.org**  
MUGIKORREAN





IURRETA

## Tellitu-n hurrengo eraikuntza

3 logelatako  
6 etxebizitza

2 logelatako  
11 etxebizitza

Garajea eta  
trastelekua barne



**Etorri  
ikustera!**



DURANGO  
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

## **Etorri ikustera geratzen diren 2 etxebizitzak!**

*Durango herrigunean  
Energia eraginkortasun  
handiko etxebizitzak*

*Hiriko txaletak*

*Oiz mendira begiratokiak*

*Leku zabalak*

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)



# DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK



ANBOTO  
**Whatsapp** bidez

**Bidali 'ALTA' 688 635 041  
zenbakira whatsapp  
bidezko mezua bidalita**

ANBOTO  
**Telegram** bidez

**Bilatzailearen bidez  
'ANBOTO' kontuan sartu  
eta egin klik 'HASI' botoian**





# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

##### SALDU

**Aramalo.** Baserri etxea. Aukera asko. 360m2 gei 140m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lur eremua. Eguzkitsua, Urkiolako parke naturalaren ikuspegi zoragarriak. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669 064 788.

**Berriz.** Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.

**Durango.** Pisua salgai Durango erdi-erdian, Madalenako autobus geltokiaren alboan. Berritua (eraikina, ataria eta pisua). Oso eguzkitsua. Bista onak. 3 logela. Arropa zabaltzeko tokia. Igogailua. Interesa duenak deitu edo idatzi: 676-97-65-87 / [oizkalea@gmail.com](mailto:oizkalea@gmail.com).

##### ERRENTAN EMAN

**Berriz.** Pisua alokatzen da Berrizen. 50m2. Garajea eta traselekuarekin. Eskola aurrean. 600euro. Tel.: 646-69 19 54

#### PISUA KONPARTITU

##### PISUKIDE BILA

**Durango.** Durangon pisuren bat erdi bana edo hiruren artean alokatzeko pisukide bila dabilen 32 urteko durangar bat naiz (beti zereginetan, alaia, euskalduna eta bizikidetzat errazduna). Interesatuta bazaude, bidali mezu bat hizketan hasteko 646 656 589 zenbakira.

**Durango.** 34 urteko neska durangarra naiz eta pisukide arduratsu baten bila nabil. Interesa badaukazu, idatzi mezu bat edo deitu zenbaki honetara. Tel.: 637-32 74 65.

## Fruta eta barazki arloan lan egingo zenuke jendearekin hartu-eman zuzena duen eta jubilaroagatik itxiko den denda batean?

Deitu 946 817 616 telefonora edo etorri Mahats dendara.

### Lana - negozioak

#### LAN ESKARIAK

##### OSTALARITZA

**Durangaldea.** Lan bila nabil zerbitzari moduan. Esperientzia daukat. Beste lan batzuk egiteko prest ere banago. Tel.: 651-64 68 82

##### ETXEKO LANAK

**Durangaldea.** Lan bila nabil garbiketa egiten. Hiru orduko lana nahi dut, goizez zein arratsalde. Tel.: 655-85 79 95

**Durangaldea.** Lan bila nabil etxe zein enpresetako garbiketan, banatzaile lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen. Goizez, astelehenetik barikura bitartean. Tel.: 606-78 76 78

##### PERTSONAK ZAINDU

**Durangaldea.** Gizonezkoa lan bila lorezaintzan, gizonezko pertsona nagusiak zaintzen, igeltserotza laguntzaile moduan, finkak edo baserriak zaintzen. Tel.: 631-27 91 26

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langile moduan. Erabateko prestasuna. Tel.: 632-75 79 30

**Durangaldea.** Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntza eta DBHn partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40

**Durangaldea.** Lan bila nabil

pertsona nagusiak zaintzen, kanpoko zein barneko langile moduan. Esperientziaduna eta erreferentziakin. Tel.: 612-57 49 82

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita etxe edo atarrietako garbiketa egiten edo sukaldari laguntzaile lanetan ere. Orduka, gauzez edo kanpoko langile moduan. Tel.: 665-13 30 89

**Durangaldea.** Neska arduratsua nagusiak edo umeak zaintzen lan egin nahi du, baita atariak garbitzen ere. Kanpoko zein barneko langile moduan. Tel.: 632-99 90 79

**Durangaldea.** Emakumea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen kanpoko zein barneko langile moduan. Arduraduna, erreferentziakin eta esperientziarekin. Tel.: 631-95 28 27

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan, edo orduka. Tel.: 632-98 18 22

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Erreferentziak ditut eta 2012tik lan hauek egiten aritu naiz. Tel.: 622-95 74 59

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-16 37 82

**Durangaldea.** Neska euskalduna, ikasketekin eta esperientziarekin, umeak zaintzeko zein etxe lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67 / 946-81 39 40

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Tel.: 697-49 20 58

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Baita tabernetako edo atarrietako garbiketarako egiteko prest ere. Lanaldi osoan edo orduka lan

egiteko prest. Tel.: 631-28 71 29

**Durangaldea.** Lan bila nabil gauetan pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 690-68 73 95

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko, barneko zein ordukako langile moduan. Tel.: 632-29 15 39

**Durangaldea.** Emakume arduratsua lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko edo ordukako langilea. Ordezkapenak egiteko prest. Tel.: 632-63 60 69

**Durangaldea.** Neska arduratsua esperientziarekin eta erreferentziarekin lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketa lanetan aritzeko prest ere banago. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-72 50 54

**Durangaldea.** Neska arduratsua esperientziarekin eta erreferentziarekin lan bila dabil umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Garbiketa lanetan aritzeko prest ere banago. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-41 58 36

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-34 52 86

**Durangaldea.** Gizonezkoa lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko, barneko zein ordukako langile moduan. Esperientziarekin. Tel.: 631-82 33 86

##### IRAKASKUNTZA

**Durangaldea.** Irailtik aurrera eskola partikularrak emateko prest nago. Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta hizkuntza arazoetan espezializatuta dagoen irakaslea naiz eta 6-12 urte bitarteko ikasleei eskola partikularrak ematen esperientzia daukat. Tel.: 685 77 41 80.

**Durangaldea.** Ikasle euskalduna irailtik aurrera eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 697-32 92 88 (whatsapp bidez ere erantzuten da).

**Durangaldea.** Bigarren Batxilergoko ikasle euskalduna eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 697-32 92 88

##### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Lorezain moduan, sastrakak kentzen zein baserriko lanak egiteko lan bila nabil. Baita gauetan nagusiak zaintzeko ere. Tel.: 690-68 73 95

#### LAN ESKAINTZAK

##### OSTALARITZA

**Abadiño.** Matienako jatetxe batek asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar ditu. Esperientzia kontuan hartuko da. Berehala hasteko. Tel.: 690-37 67 48 (goizez deitzea hobeto).

**Zaldibar.** Zerbitzari bila gabiltza Zaldibarren. Taberna batean lan egiteko, astelehenetik barikura. Orduetgia eta soldata zehazteko. Berehala hasteko. Idatzi edo deitu: 647 268 863.

##### IRAKASKUNTZA

**Durango.** Euskarazko irakaslea behar da, heldu batentzat. Ez dut azterketarik prestatu behar. Tef.: 645 009 602

#### Denetarik

##### SALDU / EROSI

**Hozkailua salgai.** Hozkailu bat salgai dut Durangon, 50 euroren truke. Izozkailua ez dabilen arren, erdi berri dago. Tel.: 636-04 63 18

#### Aisia - kirola

##### MUSIKA / PELIKULAK / LIBURUAK

##### SALDU

**Gitarra salgai.** "Admira juanita" modeloko gitarra klasikoa saltzen dut. Oso egoera onean dago eta zorroa oparitzen dut. Dena 85 euroren truke. Whatsapp bitartez kontaktuan jarri: 655 714 866.



# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Irailaren 8an, 23:30ean, Elorriko plazan

## Ken Zazpi

'Phoenicoperus' diskoaren bira amaitzeko eskainiko duten kontzertuetako bat izango da gernikarrek, gaur, Elorriko inguruan. Taldearen garai guztietako kantuak joko dituzte Elorriko plazan.



### Jaiak

#### :: ABADIÑO (Muntsaratz)

##### IRAILAREN 9an

Umeen futbito txapelketa.

##### IRAILAREN 10ean

**10:00etan**, VIII. Duatloi txikirako izen-ematea.

#### :: ELORRIO

##### IRAILAREN 8an

**09:00etan**, Elorrio zirkularra.

**11:30etan**, jubilatuko omenezko meza, Sortzez Garbiaren basilikan.

**13:00etan**, kopaua Elorriko jubilatuentzat, Aldatsekuan.

**16:00-20:00**, haur parkeak.

**Arratsalde**, areto futbol partiduak, kiroldegian.

**18:00etan**, zumba, txosnagunean.

**18:15etan**, lagunarteko triangularra, Elizalden.

**18:30etan**, Duo ciclón, Aldatsekuan.

**19:00etan**, olinpiadak, plazan. Lagun arteko partiduak, Errugbi zelaian.

**21:00etan**, Masa Coral del Ensanche, Arriolan.

**22:00etan**, Clásicos Excéntricos, Urarkan. Idi proba txapelketa, probalekuan. Sound System, txosnagunean.

**22:15etan**, suzko zezena, plazan.

**23:30etan**, Maravilla Gypsy Band, Urarkan. Ken Zazpi, plazan.

**00:00etan**, Musika-jartzaileak, Gaztetxean.

**01:00etan**, Sound System, txosnagunean.

##### IRAILAREN 9an

**08:00etan**, Sukalki eguna, Aldatsekuan.

**Goizean**, bigarren eskuko 3R azoka, Berrio-Otxoan.

**12:00-14:00/17:00-20:00**, Haur parkea eta txu-txu tren, Buzkantza kalean.

**17:00etan**, Bentazaharreko mutiko alaien kalejira.

**17:15etan**, Gazteok fanfarrea kalejiran.

**18:00etan**, karrozen jaitsiera, Aldatsekuan. Txokolatada, plazan. Mozorro lehiaketa, plazan.

**22:00etan**, Idi proba txapelketa, probalekuan.

**22:15etan**, suzko zezena, plazan.

**22:30etan**, La Cosa antzezlan, plazan.

**23:00etan**, Gorka Suaia eta lagunak, Gaztetxean.

**00:00etan**, DJ Tarantistak, txosnagunean.

##### IRAILAREN 10ean

**Goizean**, Elorriko kulturak dasta ditzagun elkartasun jaialdia, Arriola kalean.

**13:00etan**, herri kirolak, plazan.

**18:00etan**, bertso saioa, Casajaran. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Oihane Perea eta Nerea Ibarzabal.

**19:00etan**, Alos Quartet eta Aukeran dantza konpainia, plazan.

##### IRAILAREN 11n

**22:00etan**, Idi proba txapelketa, probalekuan.

#### :: IZURTZA

##### IRAILAREN 8an

**11:00etan**, meza, Erdoitzako basilizan.

**12:00etan**, Mendigain dantza taldea.

**16:00etan**, umeentzako jolasak.

**17:30etan**, kontu kontalariak.

##### IRAILAREN 9an

**09:30etan**, mendi bizikleta martxa.

**18:00etan**, igel txapelketa.

**19:00etan**, tortilla txapelketa.

**21:30etan**, afari herrikoia.

**23:00etan**, Luhartz.

##### IRAILAREN 10ean

**10:00etan**, kalejira Jaizalegaz.

**11:00etan**, meza Santo Tomas basilizan.

**12:00etan**, Mendigain dantza taldea.

**12:30etan**, Manu Goigana eta Oihana Iguaranen bertso saioa.

**14:00etan**, jubilatuen bazkaria.

**17:00etan**, mus txapelketa, Argintxu elkartean.



### Omenaldia

#### :: BERRIZ

##### IRAILAREN 11n

**18:00etan**, frankismoaren biktimei gorazarrea, Felipe Urriaga enparantzan. Jarraian, 'Gu ere errefuxiatuak izan ginen' ekitaldia, Kultur Etxean.



### Musika

#### :: ELORRIO

##### IRAILAREN 8an

**21:00etan**, 'Si las mujeres mandasen' zarzuela, Arriolan.



### Erakusketa

#### :: ZORNOTZA

##### IRAILAREN 30era arte

Bosteko erakusketaren XX. edizioa, Zelaieta zentroan. Damaris Pan, Usoa Fullaondo eta Tasio Ardanaz artisten lanak.



### ZINEMA

#### :: DURANGO ZUGAZA

**It**  
 • barikua 8: 19:30-22:00  
 • zapatua 9: 17:00-19:30-22:30  
 • domeka 10: 16:30-19:00-21:00  
 • astelehena 11: 18:30-21:00  
 • martitzena 12: 20:00  
 • eguaztena 13: 20:00

#### El amante doble

• barikua 8: 19:30-22:00  
 • zapatua 9: 20:00-22:30  
 • domeka 10: 19:00-21:30  
 • astelehena 11: 18:30-21:00  
 • martitzena 12: 20:00  
 • eguaztena 13: 20:00 (jatorrizko bertsioa)

#### Una cita en el parque

• barikua 8: 22:00  
 • zapatua 9: 20:00-22:30  
 • domeka 10: 18:30-21:30  
 • astelehena 11: 18:30-21:00  
 • martitzena 12: 20:00

#### Tadeo Jones y el secreto del rey Midas

• barikua 8: 19:30  
 • zapatua 9: 17:00-18:00  
 • domeka 10: 16:30-17:00

#### Angry inuk

• eguaztena 13: 20:00

#### :: ZORNOTZA ARETOA

#### Barry Seal: el traficante

• barikua 8: 20:15  
 • zapatua 9: 19:30-22:00  
 • domeka 10: 20:00  
 • astelehena 11: 20:15

## IRAILEKO AGENDA



### 10 IURRETAKO KOFRADIEN EGUNA

### 11 ANDEREBIDE GOIURIA KULTUR GUNEA

**18:00-20:00** "Taller de autoestima" kurtsoaren hasiera. Jon Fernandez.

### 17 AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA SAN MIGEL JAIK

Argazki Rallya on line: "Iurretako jaiak"

**9:00** Aharri lurreta zikloturista martxa.

**11:00** Beldur Barik gunea Askondon

**11:00** La Otra Mirada gunea Askondon

**11:00** Iurretako III herri lasterketa familiarra **11:00** (Txupeteak- txikiak) 2017-2009 / 340 metro. **11:15** (benjaminurrea- benjaminak- kimuak) 2008-2005 / 900 metro. **11:30** (Haur-Kadete-Gazteak) 2004-2000 / 1.100 metro. **11:30** (Nagusiak) 1999 eta aurrekoak / 3.300 metro. **11:30** (Nagusiak) 1999 eta aurrekoak / 5.500 metro.

**12:30** Umeentzako Motorren lasterketa.

**13:30** Errifa solidarioa "La Otra Mirada".

Umeentzako herri kirolak (Heki).

### 20

**15:00** Bibliotekan Booktuberboom-erako elkartzea Mattin Ceberio booktuberrarekin. (14-18 urtekoentzat).

**16:30-21:00** Odol-ematea.



**> BOTIKAK****BARIKUA, 8**  
09:00-09:00**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Iruarrizaga, Karme**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 9**  
09:00-09:00**Gaztelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango**Iruarrizaga, Karme**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-13:30

**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Etxebarria**  
Montevideo etorb. 2 - Durango**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Larrañaga-Balentiaga**  
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz**Eguren, Isabel**  
Trañabarren 15 - Abadiño**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoin**  
Bixente Kapanaga 3 - lurreta

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**DOMEKA, 10**  
09:00-09:00**Etxebarria**  
Montevideo etorb. 2 - Durango**Iruarrizaga, Karme**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 11**  
09:00-09:00**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karme**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**MARTITZENA, 12**  
09:00-09:00**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karme**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**EGUAZTENA, 13**  
09:00-09:00**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango

09:00-22:00

**Iruarrizaga, Karme**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**EGUENA, 14**  
09:00-09:00**Irigoin**  
Bixente Kapanaga 3 - lurreta

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar** (Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño)**Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)**Iruarrizaga, Karme**  
San Miguel 15 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztieneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)

f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Oihan (686. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.**> Oromiñoko Natalik**  
4 urtetxo bete zituen. Zorixonak, laztana!**> Irailaren 4an Ekainen**  
urtebetetze eguna izen da. Zorixonak, guapo!**> Oromiñoko Karmelo Iriondok**  
irailaren 6an urteak bete ditu. Zorixonak, aittitte!**> Pasa dan astelehenen 5 urte ein ebazan Anek.** Zorixonak etxekuen partez.**> Zorixonak etxeko mutil handixeri**  
bere 7. urtegunien eta ongi etorri txikitxo geure artera! Zaparrada bat mosu!**> Iratik 13 urte eta Oroitzek 9 urte**  
bete dabiez. Muxu potolo pillo bat aitatxo eta amatxon partez.**> Zorionak, Jon.** Irailaren 11n 11 urte egingo dozuz. Musu haundi bat amatxo, aitatxo eta denon partez. Aupa, txapeldu!**> Zorionak, hirukote!** Amama Rosamari, lehengusu handien eta izeko-osabaren partez.**> Abuztuaren 28an Madalenako Agustin Aranak**  
90 urte bete abazan eta bazkari batekin ospatu genuen. Zorionak, Agus!

# Anbotorenlagunak

AFEDEk emandako  
150€-ko bi bonu zozkatuko  
ditugu Anbotoren Lagunen  
artean. Zorte on!

AURREKO ASTEKO  
ZOKKETAREN  
IRABAZLEA  
**COLOR PLUS**ek  
emandako funtzio  
askoko inprimagailua

JUAN MANUEL  
EGIA AURRE

**ZORIONAK!**

**afede**  
GURE JOSTAILU-DENDA

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak  
Tel.: 946 816 558 · [www.anboto.org](http://www.anboto.org) · [lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org)



# “Txip aldaketa egitea lortu gura dugu, Berazako parkeari bizitasuna emateko”

Herriari zabaldutako Beraza jubilatuen tabernak Ferixa Nausikoen atarian ireki zituen ateak

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
Mugimendu askoko egunak dituzte inauguratu berri duten Beraza jubilatuen tabernak. Egunotan Beraza parkeak duen “bizitasunari” eutsi guran hartu du taberna Maite Arginzonizek, eta ari dira martxa hartzen. Martitzenetik aurrera 08:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; zapatuetan itxi egingo dute, domeka arratsaldera arte.

**Ferixa Nausikoen atarian zabaldu duzu Berazako Jubilatuen Taberna. Nola joan dira lehen egunak?**

Zoritxarrez, esperientziarik barik harrapatu gaituzte Ferixa Nausikoek. Ikasi orduko badaoz jaiak. Baina, ondo! Ferixa Nausikoen Azoka eta kuadrillen bazkaria hemen izan genituen eta asteburuan Jubilatuen Eguna eta Sukalki eguna ditugu. Mugimendu askoko egunak dira, baina bagabiltza martxa hartu guran! Astelehenan itxi egingo dugu eta martitzenean ohiko ordutegian hasiko gara.

**Tabernari moduan lehenengo aldia duzu?**

Asko ibili naiz txosnetan. Baina taberna baten ugazaba edo arduradun lez lehenengo aldia daukat. Eskariak egiteko-eta zoratzekoa izan da, baina, ahizparen laguntzagaz bagabiltza.

**Nolatan animatu zara?**

Ekain inguruan ikusi nuen lizitazioa. Baina, orduan, euskara ez ezik esperientzia profesionala eskatzen zuten, eta nik ez dut esperientzia hori. Hala

ere, orduan deigarria egin zitzaidan Berazako parkea. Horri bizitasun apur bat emateko terraza bat jartzeko aukera zoragarria zuen tabernak. Frontoia, txin-txaunak... daude. Hala ere, ez zen inor aurkeztu eta berriro zabaldu zuten lehiaketa. Bigarrenenean ez zuten esperientziarik eskatzen eta buru-belarri sartu nintzen.

**Berazari bizitasun apur bat emateko helburuagaz?**

Bai! Jubilatuen taberna izan da beti hau eta jubilatuek bakarrik etorri izan dira. Herri guztietan daude jubilatuen tabernak eta denetarikoa herritarrek joaten dira. Elorrioren, ez. Ez dakit zergatik. Txip aldaketa egitea lortu gura dugu; beharrezkoa da Berazako parkeari bizitasuna emateko. Frontoira datozen kirolariak, txin-txaunetara umeekin datozenak, pasiadan etortzen direnak... erakarri gura ditugu.

**Bizitasuna galdu du Berazak?**

Bai. Herriaren goialdean dago, apur bat bereiztuta. Garai batean bizi gehiago zegoen. Ez dakit krisiaren eraginez-edo, tabernak ere ixten hasi ziren, eta gero eta jende gutxiago dabil. Txin-txaunak ere apurtuta egon dira. Jaietan baino ez da aprobetxatu parke hau eta urte osoan ez da batere zainduta egon. Bertatik pasatu izan naitzenetan triste ikusi izan dut. Uste dugu Beraza parkea berriro ireki eta berpiztu dezakegula.

**Ohiturak aldatzea ez da erraza izango...**

Ahoz ahokoa lantzen ari gara eta apurka-apurka etorri da jendea.

Bagabiltza zabaltzen herri-tar guztientzako taberna dela eta Ferixa Nausikoak lagungarri dira askotariko jendea erakartzeko. Ezagutarazteko.

**Taberna berriro ireki dago?**

Udalak taberna guztia margotu du, eta barru guztia berriro. Kafe-makina eta garagardoa zerbitzatzekoa jarri ditugu.

**Dekorazio berezia jarri duzue tabernan?**

Bai. Herriko artisten lanak jarri ditugu. Eskulanak margolari elkarteko lagun baten bitartez jarri ditugu. Herriko hainbat tabernatan erakusketak jartzen dituztela esan zigun eta ze politagoa elorriarren margoak horretan jartzea baino! Eurentzat herri-ara begirako erakuslehoia da.

**Nola hartu dute aldaketa jubilatuek?**

Momentuz, ez dugu kezarik eduki. Pozik daude aldaketa-gaz. Gainera, ekainetik itxita egon da, eta go-goaz zuten kafe txoa hartzeko.

**Mendia duzu pasioa. Erdellako presidentea izan zinen urteetan. Zer ematen dizu mendiak?**  
Dena da niretzat. Txip aldake-

ta egiten dut, lasaitasuna ematen dit. Aske sentitzen naiz mendian. Inoiz ez dut utzi Erdellagaz lotura. Tabernara ekarriko ditut denak!



## LAUHORTZA

**AMAIA UGALDE BEGONA**

Kazetaria



### Gertu

Ezin dut irudikatu kalera irten zarenean zer asmorekin irten zaren. Agian zure alkondara berriena jantzi duzu, edo parrandaro ateratzen duzun beste hura, harekin guapoago zaude-lakoan. Ez dakit lagunekin irten zaren, edo lagunak azkar galtzeko intentzio osoarekin. Tabernara sartu garenean, barra ertzean ikusi zaitugu, bakarrik, eta itxura txarra hartu dizugu. “Tipo arraro bat dago hor”.

Tabernariari oso modu txarrean, zakar, bota diozu edalontzia, zerbeza eske. Guri begira zaude. Erne jarri gara. Deseroso, beste leku batera mugitzea erabaki dugu. Apur batera, han izan zara berriro, gure inguruan. Gure korroan sartzeko ahalegina egin duzu, eta bizkarra eman dizugu. Nire lagunaren besoa ikutzen hasi zara, “laztanten”, eta nazka eman diguzu. Nazka eta amorrua. Indarkeria inpultso batez, joateko esan dizugu. Utzi bakean. Eta alboko koadrilako neskengana hurreratu zara.

Kontatutakoa zapatuan gertatu zitzaigun, Ferixa Nausikoen. Sentitu genuen ezinegona gauza txikia, ñimiñoa, da beste eraso batzuekin konparatuz gero, baina bai, hura ere eraso izan zen.

Asteon, Antzara Egunaren biharamunean izan dugu beste bortxaketa salaketa baten berri. Beste bat. Durangon bertan ere, Andra Mariko elizpean larregitan zabaldu behar izan dute pankarta durangarrek pairatutako erasoak salatzen.

Ez gaitezen ohitu jaiero horrelako albisteak entzuteran. Gurean ere gertatu daiteke, eta gai honek jarrera aktiboa eskatzen du. Hor egon behar dugu, gertu, geure burua defendatzen, beste laguntzen, erasoei aurre egiten. Aske bizitzeko eskubidea dago jokoan.

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

## PRODUKTU BERRIAK!



**MOKETA GARBITZEKO**



**OLIOA ATERATZEKO PONPA**



**APILAGAILU ELEKTRIKO**

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550

GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)

